

GAIA: HUHEZI. IRAKASLEGATAK KONPETENTZIE TAN GAITZEN • EKARPENA:
ROGER P. WEISSBERG • GALDEIDAZUE: ITZIAR IDIAZABAL • HEZKIDETZAZ:
IPUINAK GELETAN • IZENADUBA BASOA • ATZEKO ATETIK: AMAGOIA MUJIK

hh
hik hasi

133

4 EURO • 2008KO ABENDUA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA

Elisa Heimovaara

“Ikasle batzuek
hezkuntza
sistema
teorikoegia dela
diote, eta ez
dituela bizitza
errealerako
prestatzen”



ELKARRIZKETA


...irakurtzea gustatzen zait, eta zer?



5
URTE-TIK
AURRERA



13
URTE-TIK
AURRERA



8
URTE-TIK
AURRERA



7
URTE-TIK
AURRERA



12
URTE-TIK
AURRERA



aurkibidea



8
gaia

IRAKASLEGAIK KONPETENTZIAN GAITZEN

uskal hezkuntzak etorkizunera begira dituen erronken artean irakasleen prestakuntza dago. HUHEZIn garrantzia handia ematen diote irakaslegaiak kompetentzietan gaitzeari eta bertako irakasleak, irakasle izatearen garrantziaz jabetzeari. Eskoriatzako kulturaren aurrera eramaten ari diren esperientzia ezagutzeko aukera izan dugu.



16
elkarrizketa

ELISA HEIMOVAARA

Finlandian, prestigio handia du irakasleen lanak. Elisa Heimovaara Jyväskylä Unibertsitateko irakasle eskolako irakaslea da, eta Finlandiako hezkuntza sistemari buruz hitz egiteaz gain, irakasleen prestakuntzaren oinarriak zein diren azaldu ditu, baita zer erronka dituzten ere.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

HUHEZI. ESKORIATZAKO IRAKASLE ESKOLA
IRAKASLEGAIK KONPETENTZIAN GAITZEN

16 elkarrizketa

ELISA HEIMOVAARA

24 ekarpenak

Ikaskuntza emozionala eta soziala

26 esperientziak

Lasarte-Usurbil BHI

28 hezkidetzaz

Ipuinak geletan. Ametsei atek zabaltzen

30 galdeidazue

Zer egin dezakegu ikasleek hau galdetzen dutenean: zergatik hitz egin behar dugu euskaraz, gaztelaniaz edo frantsesez denok elkar ulertzen badugu?

Itziar Idiazabal

33 berriak

40 nora joango gara?

Izenaduba basoa

Izena duen guztia... bada!

42 Atzeko atletik

Amagoia Mujika

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Olatz Lasagabaster. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Arantxa Urbe, Miren Guilló eta Ainhoa Azpiroz. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Kepa Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Matilde Sainz eta Pruden Sudupe. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANtZ S.A.L. Azaleko irudia: Elisa Heimovaara. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2008-XI-20). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzake. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,

Harpidetza orria



hik hasi_k
zure parte-hartzea
ezinbestekoa du,
harpide zaituz!
50 euro urtean

Prezio horren barruan
10 aldizkari, ale monografikoak
eta Euskal Herriko baliabide
pedagogikoen gida.
Horrez gain, prezio bereziak
Udako Topaketetan eta
argitararazten ditugun
gainontzeko materialetan

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena

1. Deitura

2. Deitura

Telefonoa

Helbidea

Posta Kodea

Herria

Herrialdea

Lantokia

Lantokiaren herria

IFZ-NAN

Posta elektronikoa

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

hik hasi Euskal heziketarako aldizkaria
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua

HARPIDETZA SARIAK
(BEZ barne) 50 euro

editoriala

abendua

Hizkuntza aukera berdintasunik gabe



Benetako nahia eta helburua jendartea kohesionatzea bada, oso ongi zaindu eta bermatu beharko da partaide guztien hizkuntza aukera berdintasuna.

Gasteizko Hezkuntza Sailak *Euskadin hizkuntza ofizialak eta atzerrikoak irakasteari, ikasteari eta ebaluatzeari buruzko lege markoaren proiektua* aurkeztu du.

Azken dokumentu horrek aurretik beste batzuk izan ditu, eta batetik bestera, bidean, edukia eta norabidea aldatuz joan da.

Jaiotzeak heriotza omen du zor. Kasu honetan, legeak, teknikoki ezinezkoa luke jaiotzea, eta aukera guztiak ditu argirik ez ikusteko. Izan ere, EAEn hauteskundeak izango dira martxoan, eta, beraz, dokumentu horrek ez luke denborarik izango Lakuako Gobernu Kontseiluak onartua izateko, eta, ondoren, Gasteizko Legebiltzarrak onesteko, legea izateko jarraitu behar dituen pausoak burutzeko, alegia.

Hortaz, hutsala litzateke testu horren gaineko eztabaidan sakontzen jarraitzea. Hor geratu dira, denen begibistan, gai horrekiko izan diren jarreak, eta norberak atera beharko ditu bere ondorioak.

Hala ere, aurkeztu den proiektuaren zioen azalpenean hauxe aipatzen da: "hizkuntza ofizialak modu egokian ezagutzea funtsezko printzipioa da gizarte-komunitate osoaren bizikidetzatza bermatzeko, betiere gizarte- eta hizkuntza-kohesio gero eta handiagoa erdiestea helburu izanik".

Hari horretatik tira egin nahiko genuke guk, eta kohesioaren inguruko hausnarketa horretan haratago joan behar dugula mahaigaineratu. Jendarte kohesioaren oinarria guztientzako hizkuntza aukera berdintasuna bermatzek izan beharko luke. Eta aukera berdintasuna lortzeko bidea hizkuntza eskubideak beteaz solik egingo da.

Gaurkoz, Euskal Herriko Oinarrizko Hezkuntza Akordioan jasoa dago eskubide hori: "Euskal herritar orok eskolaren bidez euskalduntzeko eskubidea du. Euskal Herri osoan, edozein hezkuntza eskaintzatan euskaraz ikasteko eskubidea du. Eta hezkuntza prozesu osoan, ikasgune guztietan, euskaraz bizitzeko eskubidea du".

Guztientzako eskubide hori bermatzeko bide luzea geratzen da Araban, Gipuzkoan eta Bizkaian; eta, zer esanik ez, Nafarroan, Lapurdin eta Zuberoan.

Ez gaude abiapuntuan, hala ere. Urte asko daramatzagu ibilian eta gauza asko dira ikertu, espermentatu eta ikasi ditugunak.

Tamalez beste aukera galdua izan da, aukera historikoa, agian. Euskararen Kontseiluak Ikasle Euskaldun Elea-niztunak sortzeko proposamena egina zuen Hezkuntza Sailaren enkarguz. Hezkuntza eragile nagusienek babesa erakutsi zuten proposamenarekiko.

Hala ere, beste behin, interes politikoak gailendu dira eskubideen, kulturaren, irizpide hezitzaileen, normaltasunaren eta herritarrek behar duten hizkuntza aukera berdintasunaren aurrean. Ikasle asko eskolatik euskara jakin gabe irtetera kondenatu dituzte berriro ere, eta ezingo dute jendartean euskaldunekin aukera berdintasunean bizi.

kronika

Atzerriko hizkuntzei euskarari baino babes handiagoa eskainiko die Nafarroako Gobernuak 2009an. *Eskolen hizkuntza plangintza* diru sailean 439.389 euro soilik bideratu ditu euskararentzat, sail berean, ordea, 2,2 milioi euro bideratu ditu atzerriko hizkuntzentzat, bost aldiz diru gehiago, alegia. Bestalde, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lanpostuen erdia ingelesa dakitenentzat gordetzea adostu dute UPNk, PSNk eta CDNk, eta ikastetxeak hizkuntza ereduka ez banatzeko konpromisoa hartu dute hiru alderdiek.



Berria

Hizkuntz ereduaren proposamen berriak ez ditu hezkuntza eragileak asetu

Kritika gogorak egin dizkiote sindikatuek eta hezkuntza eragileek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak aurkeztu duen hezkuntza ereduaren erreformarako lege egitasmo berriari. Euskalduntzea baino, babes politikoa bilatzen duela iritzi diote, eta gogor salatu dute erreforma ezartzeko lau urteko epea proposatu izana.

Tontxu Campos Hezkuntza sailburuak txertatu dituen aldaketa nagusiekin ez datoz bat ez sindikatuak, ezta hezkuntza eragileak ere. Aldaketa nagusi horien artean erreforma aplikatzen hasteko lau urteko epea ezarri du Hezkuntza Sailak, eta horren arabera, erreforma mailaz-maila aplikatuko litzatekeela kontuan izanik (le-

henik, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehenengo mailan, eta datozen urteetan, urtero maila bat gorago), eredu berria 2025. urtera arte ez litzateke guztiz aplikatuko.

Aldaketa horien artean beste bi hauek ere txertatu dituzte: alde batek, lehen, helburuak lortzen ez zituzten itunpeko ikastetxeek hitzarmena galtzeko arriskua aipatzen zen, orain, berriz, puntu hori ezabatu dute hainbat ikastetxek eta eragilek mehatxu gisa ikusten zutelako. Sare publikoan berriz, lehen gurasoei ikastetxez aldatzeko aukera eskaintzen zitzaien, eta oraingoak aukera hori kendu du. Hirugarren aldaketa nagusia, ebaluazioari lotutakoa da. Hizkuntza gaitasuna ez da modu berezian ebaluatu, hezkuntzako gaien arteko beste ebaluazio gai bat izango da.

Camposek hizkuntz ereduaren erreforma legealdi honetan egiteko nahia berretsi du, baina hauteskunderak martxoan direla kontuan hartuta, ezinezkoa dirudi Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak onetsi beharko bailuke lehenik lege egitasmoa, ondoren Legebiltzarrera igortzeko.

Ni urliaren hizkuntza ikasten ari naizela, hark nire hizkuntzari zor zaion begirunea ukatzen badit, haren hizkuntzan hitz egitean ez dut buru-irekitasunik erakusten, mendekotasuna eta morrontza baizik.

Amin Maalouf



Berria

Erantzun zabala izan du itunpeko ikastetxeen grebak

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako itunpeko ikastetxeetako langileek greba egin zuten joan den azaroaren 12an. Haien lan baldintzak sare publikoko irakasleen lan baldintzekin parekatzea eskatu zuten langileek, eta, era berean, finantzaketa marko ego-kia onartzeko eskatu zioten Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari.

ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuek egin zuten greba deialdia eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako itunpeko ikastetxeen % 80 itxita egon zirela esan zuten. Kristau eskoletan ikastoletan baino eragin txikiagoa izan zuen lanuzteak. Partaideren sareko ikastoletan greba erabatekoa izan zen, eta gainerako eskola pribatuetan gorabe-

heratsua: Gipuzkoan eta Bizkaian % 70 inguruk egin zuten greba eta Araban, % 50ek. Hezkuntza Sailak bestelako datuak eman zituen eta horien arabera, ikastetxeen % 48k eta irakasleen % 40k egin zuten greba.

Grebak izandako erantzunarekin gustura agertu ziren sindikatuak, baina, lan baldintzak homologatzea lortu arte protestekin jarraituko dutela adierazi dute, eta ez dute baztertu beharrezko ikusten badute, berriro ere grebara jotzea. 2008ko lan hitzarmenaren negoziaketa etenda dago gaur egun, eta langileen lan baldintzak hobetuko dituen Finantziario Akordio berria eskatzen diote sindikatuek Eusko Jaurlaritzari. Eusko Jaurlaritzak esan du, ordea, epe laburrean sare publikoko eta itunpeko sareko irakasleen lan baldintzak guztiz parekatzea ez dela posible izango. Bilerak egiten ari dira itunpeko eskoletako patronala eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko ordezkariak, eta horietan hiru ildo aztertzen ari dira LAB sindikatutik jakinarazi dutenez: soldaten homologazioa, funtzionamendu gastuak eta amortizazioa.

Jarraipen zabala izan zuen Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan joan den azaroaren 20ean kolegio eta lizeoetan egin zuten grebak. Sindikatuek emandako datuen arabera, % 70ek egin zuen greba Lehen Hezkuntzan. Paueko Akademia Ikuskaritzak emandako datuen arabera, berriz, % 41,54koa izan zen grebalarien kopurua, orokorrean. Baliabideen murrizketa salatu zuten grebalariek, izan ere, iaz Frantziako Hezkuntzak 11.000 lanpostu murriztu zituen, aurten 11.200, eta datorren ikasturtean, 13.500 lanpostu kentzeko asmoa du. Aurtengo programan bi eskola ordu kendu dituzte eta ordu horiek zailtasunak dituzten ikasleei laguntzeko baliatu behar dituzte irakasleek. Horren ondorioz, orain arte lan hori egiten zuten irakasleek lanpostua galduko dute. Egoeraren larritasuna ikusita, langileek ez dute baztertu greba jarraia egiteko aukera aztertzea.

GAIA

HUHEZI. Eskoriatzako Irakasle Eskola

*Irakaslegaiak konpetentzietan
gaitzen*





Euskal hezkuntzak erronka mordo du etorkizunera begira, baina horien artean, irakasleen prestakuntza da garrantzitsuenetako bat; irakasleei kompetentzien gaineko prestakuntza eskaintzea. Beharrezkoa da, irakasle ikasketak egiten ari direnak, kompetentzietan heztea, irakasle izatearen garrantziaz jabetzea eta horrekin batera, Euskal Herrian irakasle izateak duen garrantziaz ohartzea. Oso interesgarria da, bide horretan, Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien fakultatea (HUHEZI) garatzen ari den esperientzia. Ikasleen parte-hartze aktiboan oinarrituz, eta arazoak ebazteko metodologia jarraituz, ikaskuntza-irakaskuntza prozesua aldatu dute eta betiko moldeak irauli dituzte. Irakasleek eskola magistralak emateari utzi diote eta ikasleekin batera, errealtatearen azterketan murgildu dira, kompetentziak garatuz.

G

Kompetentziak landuz, kompetentzietan hezi

Europako Batzordeak irakasleen formazioaren gainean egindako azterketan aipatzen dituenak aintzat hartzen dituzte HUHEZIn. Hala adierazi zuen Marian Bilbatua irakasleak Hik hasik argitaratu zuen *Irakasleen profila* izeneko ale monografikoan. Hauek dira alderdi nagusiak:

- Irakaskuntza/ikaskuntza prozesuak, ikasgeletan sortzen den ikasleen aniztasun sozial, kultural eta etnikoetara egokitzea, baita gela arruntean hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen inklusioak sortzen dituen behar berrietara egokitzea ere.

- Irakaslearen rol aldaketa. Ezagutzen igorle izatetik ikaskuntzaren gidari eta kudeatzaile izatera pasatzen da irakaslea.

- Irakaslearen rola eta ardura ikasgelatatik haratago doa. Curriculum burutzea eta ikastetxeko antolamenduan aktiboki parte hartzea ere bada-gokio. Irakaslea, komunitatearekiko, beste ikastetxeekiko, elkarte sozialekiko lankidetzara eta harreman sareen partaide gisa ikusten da.

Horrez gain, irakasle berriek Euskal Herriko hezkuntza sistemak Euskal Herriko historia eta kulturaren transmisioa bermatzeko dituen erronka bereziei erantzun behar diete, haien artean hauei:

- Hizkuntzaren berreskuratze prozesuarekin erlazionatutako erronkak. Alde batetik, euskal hezkuntza sistemak haurrak euskaraz heziketa jasotzeko eta euskara bizitzeko eskubidea bermatu behar du eta, aldi berean, euskara maila egoki bat eskuratzeko bideak eskaini behar dizkie haurrei. Hori guztia, kultura desberdinetako ikasle-entzerrarekin lotu behar da; hots, eskolak gai izan behar du aniztasun horri erantzun dioen proposamen metodologikoak eratzeko eta aurrera eramateko.

- Euskal Curriculumean txertatu beharreko edukiak. Gaur hezten ari garen irakasleek Euskal Herriaren historia eta kulturarekin erlazionatutako ezagutzaren transmisioan paper garrantzitsua izango dute; horregatik, etorkizuneko irakasleek arlo horrekin lotutako ezagutza garatu behar dute.

Irakaslearen rol berria gizartearen gertatzen ari diren etengabeko aldaketen ondorioz garatu diren curriculumarekiko, hezkuntza helburuekiko eta ikastetxearen antolamenduarekiko ikuspegi berrien garapenak sortutako testuinguru berriaren ondorio zuzena dela aipatzen zuen Bilbatuak.

Beraz, profil profesionala aldatu nahi bada, orain arteko formazio eredu aldatu beharra dagoela ulertu dute HUHEZIn eta 2003 ikasturtean martxan jarri zen formazio ereduak curriculumaren antolaketan zein irakaste-ikaste metodologietan eraldaketa sakona ekarri du. Hona hemen aldaketaren norabidea.

Curriculum antolaketan aldaketak

- **Ikasgai solteetan oinarritutako curriculum batetik diziplinartekotasunean oinarritutako curricu-**



HUHEZIren filosofia

lumer.

Ikasgaien arteko lotura bermatzen duten diziplinarteko guneak identifikatu dira, lau zehazki: Hezkuntza eta Gizartea, Psikologia, Didaktika eta Komunikazioa eta Informazioa. Horieta-ko bakoitzak galdera bati erantzuten dio. Lehenak, honi: zein da eskolaren funtzioa eta zein harreman du testuinguruarekin?; bigarrenak, honi: nola ikasten dute ikasleek?; hirugarrenak, beste honi: nola antolatuko jarduerak?; laugarrenean, azkenik, bizitzarako zein lanerako behar diren tresnak biltzen dira, hala nola hizkuntzak eta informazio eta komunikaziorako tresnak.

Diziplinartekotasun gunez gain, ikasturte bakoitzean ardatza izango den jarduerara nagusia txertatu da. Lehengo ikasturtean gune bakoitzaren antolaketaren ardatzean aipatu diren galdera nagusiak. Bigarren urtean, ikasleek eskoletan egingo dituzten praktiken inguruko hausnarketa hartzen da ardatz gisa eta, hirugarrenean, praktikarekin lotuta egingo duten proiektua. Aipatutako guneetan espezifikoki garatu beharreko kompetentzietan gain, curriculum osoa zeharkatzen duten kompetentziak txertatzen dira.

Bestalde, diziplinarteko moduluetan egituratzen dira Diplomaturako hiru ikasturteak. Modulu bakoitzak bost eta zazpi aste bitarteko iraupena du.

• **Kontzeptuen ezagutzara bideratutako curriculum batetik arazora bideratutako curriculumera.**

Tradizionalki ikasgaiak hartu izan dira curriculumaren ardatz gisa eta ezagutza teorikoa hartu izan da abiapuntutzat; behin teoria ikasita, errealitateari gutxi asko lotutako egoeretan aplikatzen zen. Aitzitik, curriculum berrituan,



ikasleek aztergai dituzten arazoak edo egoera errealak dira ardatz. Arazo horiek ebazterakoan sortzen diren beharren arabera jotzen dute teoriara ikasleek. Arazo edo kasu horiek moduluko oinarritzko edukien inguruan ikasleen hausnarketa eta ikaskuntza sustatzeko helburuz diseinatu dira; aldi berean, euren lanbideko egoera errealekin lotutako jardunbide irizpideak garatzen laguntzen diete.

• **Ezagutza teorikoen garapenera bideratutako curriculum batetik titulazioak berriazko dituen kompetentzien eta kompetentzia orokorren garapenera bideratutako curriculumera.**

Profil profesionalean definitutako kompetentzia teknikoak arestian aipatutako diziplinarteko esparruen arabera banatu dira, horrela irakaskuntza/ikasleek prozesuan kompetentzia horien sarbidea bermatuz. Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza (AOI); Ka-

suetan Oinarritutako Ikaskuntza (KOI) eta Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntza (POI) egiten dute. Horrez gain, ikasgaietako eduki espezifikoaren bitartez egin den kompetentzien inguruko hausnarketa sistematikoa.

• **Ikaskuntza memoristikoa oinarritutako curriculum batetik kompetentzia orokorren garapenera bideratutako curriculumera.**

Jasotako informaziotik haratago doazen proposamenak osatzeko gaitasuna garatu nahi dute ikasleengan.

• **Irakaste-ikaste prozesuaren antolaketak mailako aldaketak**

Curriculumaren eraldaketaz bat, irakaskuntza/ikasleek prozesuaren egituraketaren inguruko irizpideen eraldaketa ekarri zuten berrikuntza prozesuak.

• **Irakaslearen irakaskuntzan oinarritutako prozesutik ikaslearen irakaskuntzan oinarritutako**



prozesura.

Ikasleek beren ikaskuntza prozesuarekiko duten arduraren gainean rol aktiboagoa hartzera bideratuko dituzten egoerak sortu nahi dira. Ikaskuntza kontzienteagoa eta esanguratsuagoa ahalbidetuko duen jarrera autonomoa eta arduratsua sorrarazi nahi da ikasleengan. Irakasleak rol berria eskuratzen du prozesuaren tutore gisa, ikasleari bere ikaskuntzaren inguruan hausnartzeko lagunduz eta, aldi berean, bere ikaskuntza autonomoa ahalbidetuko duten tresnak eskainiz. Ikasleak ezagutzara heltzeko hainbat bide esperimentatzen ditu: informazio bilaketa, esperimentazioa, hausnarketa...

• Norbanakoaren lanean oinarritutako prozesutik taldeko lanean oinarritutako prozesura.

Lankidetzan oinarritutako lana, ikaskuntza laguntzen duen elementua da. Abianjarritako modalitate guztietan lan taldeak sortzen dira. Informazioa partekatzen dute, eztabaidatu egiten dute, plangintza egiten dute, ardurak hartzen dituzte eta horien berri ematen dute taldean.

Estrategia metodologikak

• Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza (AOI)

Eredu horretan lau ikaskuntza testuingurutan dihardute ikasleek: lan kooperatiboko saioak, hitzaldia, saio praktikoa eta segimendu saioa. Lau testuinguruok osagarriak dira eta arazoa dute ardatz. Arazoa da, baita ere, ikasleak irakaskuntza/ikaskuntza prozesuan aktiboki inplikatzera motibatzen dituen estimulua.

• Kasuetan Oinarritutako Ikaskuntza (KOI)

Kasuetan Oinarritutako Ikaskuntza (KOI) Diplomaturako bigarren ikasturtean garatzen da. Ikasgelako egoera

errealen azterketa ahalbidetzea du helburu. Moduluaren helburuei dagokierik, ikasleek hainbat ikuspegitatik aztertzen dituzte kasuak.

Kasuen azterketan, kasua bera bezain garrantzitsuak dira sortzen dituen galderak; horregatik, ezinbestekoa da:

- Kasuak planteatzen dituen oinarrituko galderak edo arazoak identifikatzea.

- Azterketa osatzen lagunduko duten bigarren mailako arazoak identifikatzea.

- Testuinguruaz aztertzea.

• Proiektuetara bideratutako Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza (POPBL)

Metodologia hau Diplomaturako hirugarren ikasturtean ezarri da. Metodologia horren erreferentziatza Aalborg Unibertsitatearen (Rosenorn, 2003; Kolmos, A; 2004) eredu hartu da. Ikastetxe batean atzemandako arazo erreal baten inguruan edota irakas-

leak asmatutako arazo baten inguruan egituratzen da ikaskuntza prozesua. Ikasleek, talde txikitik, arazoa aztertu eta proiektu bat burutzen dute arazoari irtenbidea emanez. Tutorearen gidaritza jasotzen dute prozesu osoan zehar.

Estrategia metodologikoen hurrenkera

Beheko koadroan jasotzen dira metodologia bakoitzaren berezitasunak eta progresio irizpideak.

Ondorioak

Arazo errealak erabiltzeak inguru-ean aurkitutako dituzten arazoak eta erronkak identifikatzeko aukerak eskaintzen dizkie ikasleei. Klase magistralaren espazioa murrizteak eta ikasteko bestelako espazioak indartzeak eta planifikatzeak ikaslearen autonomia garatzeaz gain, zeharkako kompetentzien garapena ahalbidetu du.

Aztertutako faktoreak	Ezarritako metodologia eta estrategia didaktikoak: garapena		
	Arazoen ebazpena	Kasuen azterketa	Proiektuak (POI)
Helburua: ikaslearengatik espero dena	Egoerak ulertu, arazoak identifikatu eta interpretatu	Konponbidea ezarri edo egoerak definitzeko alternatibak bilatu	Konponbideak asmatu egoera korripilatsuentzat
Gaitasunen garapena	Ikasten ikastearekin erlazioatutako gaitasunak eta lan kolaboratiboa	Behaketarekin erlazioatutako gaitasunak eta egoera konplexuen analisia	Behaketarekin erlazioatutako gaitasunak eta alternatiben garapena
Kudeatu beharreko informazioa	Informazio mugatua Irakurketa ulergarria	Analisiari eta haren funtsari zuzendutako informazioa	Informazioaren bilaketa Iturri askotarikoak
Denbora kudeaketa	Denbora mugatua	Kudeatzeko denbora gehiago	Denboraren planifikazioa
Irakaslearen egitekoa	Tutorea eta bideratzailea	Analisia eta hausnarketa bideratutako duen tutorea	Taldearen prozesua erraztutako duen tutorea

Sagasta P., Bilbatua M. (2005)

Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza

Arazoei aurre egin behar, arazoak konpontzen ikasteko

Ikasleak, 1. mailan hasten dira Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza (AOI) lantzen. Ikasturtea moduluka antolatzen dute, eta, modulu horietako bakoitzak, hainbat arazo aurkezten dizkie ikasleei. Guk, guztia nola lantzen duten jakin nahi izan dugu, eta horretarako, 1. mailako ikasleen ikasgelan sartu ginen. *Eskola eta gizartea* izeneko modulua aztertzen ari ziren orduan, eta aste hartan, hirugarren arazoari egin behar izan zioten aurre. Prozesua hasieratik amaierara bizi izan genuen, eta orriotara ekarri dugu zuentzat interesgarria izango delakoan.

Ikasleek modulu bakoitzean landuko dutena jasotzen duen gidaliburu eskuratzen dute eta bertan hurrengo asteetan landuko duten guztia ageri da, zehaztasun osoz. *Eskola eta gizartea* izeneko modulua helburua, Euskal Herriko testuinguruari hurbilpena egitea da, eta horretarako, Euskal Herrian egun bizi dugun errealitate soziala, ekonomikoa eta kulturala aztertuko dituzte. Liburuxkak galdera egiten die ikasleei: "Inoiz pentsatu al dugu nork esaten duen zer irakatsi behar dugun eta zer ez dugun irakatsi behar? Inoiz pentsatu al dugu nola irakasten den eskolan Euskal Herriko gizartearen errealitatea eta zergatik irakasten den horrela? Nola azaltzen den liburutik gure haurrek ikasten duten Euskal Herria? Edo nola transmititzen den kultura bat?". Hezkuntzaren dimentsio soziokulturalaren eztabaida zabaldu nahi dute moduluarekin, eta ikasleak ohar daitezten, hizkuntza ere, gizartearekin eta eskolarekin elkarrekintzan aritela. Modulua, diziplinartekoa da, eta hiru diziplina ditu ardatz: didaktika, Euskal Herriko errealitatea, eta eleaniztasuna eta hezkuntza.

Moduluaren bidez hainbat kompetentzia landu nahi dituzte, honela laburbiltzen direnak:

JAKIN (edukiak)

- Gizartearen ezaugarriak identifikatu, aztertu, interpretatu eta baloratu.
- Errealitate horrek curriculumean eta ikasliburuetan duen eragina ezagutu.
- Euskararen egoera hobeto ulertu.
- Norberaren hizkuntza-testuinguruaz jabetu.
- Programa elebidunen ezaugarriak eta arrakastarako baldintzak identifikatu.
- Hizkuntza-ereduen sistema zertarako sortu zen eta emaitzen zergatia ulertu.
- Egungo hezkuntza markoa irudikatu.
- Curriculum eta curriculumaren zehaztapen prozesua ezagutu.
- Hainbat hezkuntza etapetarako proposatzen diren helburuak, edukiak, irakasteko modua eta ebaluazioa ezagutu eta ulertu.
- Dimentsio soziokulturalak (europarra eta euskalduna) ezagutu.
- Euskal Curriculumaren inguruan dauden iritziak ezagutu.
- EGITEN JAKIN (gaitasunak)
- Moduluari dagozkion edukiak identifikatu, erabili eta egoki azaldu.
- Informazioa kudeatu: bilatu, aurkeratu, aplikatu.
- Taldean lan egin.
- Proiektu bat egin (edukiak zein

hizkuntza-egokitasuna eta zuzentasuna zainduz) eta ahoz aurkeztu.

IZAN (jarrerak)

- Gure hizkuntzaren eta hizkuntza komunitatearen etorkizunean hitzun eta irakasle moduan izango dugun erantzukizuna gure gain hartu.
- Gaur egungo gizarteak planteatu-





tako erronkei aurre egiteko konpromisoa hartu.

- Dugun egoera anitz eta gatazka-tsuaren aurrean, jarrera baikorra eta eraikitzailea hartu eta erakutsi.

Astero, ikasleek arazo bati, egoera bati aurre egin behar izaten diote. Gehienez, 20ko taldeetan elkartzen dira ikasleak eta horrek, ikasgelako eztabaidan parte hartzeko aukera handiago eskaintzen die. Astelehenean aurkezten die irakasleak arazoa *Ikaskidetza I* izeneko saioan, eta denen artean horri buruz dakitena aztertzen dute ikasgelan. Ordu eta laurden dute horretarako. Ikasle batek idazkari rola hartzen du, eta beste batek dinamizatzaile rola. Funtzio horiek astero aldatzen dira. Rol horiek ematen dizkete, kompetentzia batzuk garatzen joan daitezten. Asteazkenean, berriz, arazoarekin zerikusia duen hitzaldia izaten dute.

Segimendu saioa ere badute ikasleek asteazkenean bertan, nola sentitzen diren hausnartzeko eta haien ikaskuntza prozesuari buruz gogoeta egiteko. Taldean egiten dute hori ere.

Bestalde, praktika saioak ere izaten dituzte, izan ere, amaieran ikasleek eskola baterako katalogoa egin behar dute eta eskola hori nola antolatuko luketen esan behar dute. Moduluak irauten duen bitartean egiten dute. Lana taldean egiten dute eta zuzenean lotzen da egiten jakin kompetentziarekin. Ikasleak testuinguru batean kokatzen dituzte eta horri aurre egin behar diote. Hau da adibide gisa liburuxkan jarri dutena: "Demagun ikastetxe batean lanean ari zarela eta aurre-matrikulazio garaian zaudetela. Beraz, ikasle berrien bila ari zarete eta ikastetxearen berri emango duen katalogoa kaleratzea pentsatu duzue. Horrez gain, katalogo horretan

azaltzen denaren gaineko justifikazio txosten bat egin beharko duzu".

Eta, ostegunetan, aste osoko lana biribiltzeko, *Ikaskidetza II* saioa izaten dute. Aurreko guztia landua dute ordurako, irakurketak egin dituzte, hitzaldira joan dira, praktikoa izan dute eta ostegunetan arazoa ebatzi behar dute. Astelehenean, *Ikaskidetza* Isaioan zehaztu zituzten helburuak beteko dituzte egun horretarako eta, ordurako, gaiaren ezagutza askoz ere sakonagoa izango dute.

Eta, nola egiten dute horren guztia- ren gaineko ebaluaketa? Bada, ikasleek azterketa egin behar dute; azterketa horrek notaren % 50 balio du eta gainerakoa honela banatzen dute: % 20 ikaskidetza, eta % 30 praktikoa. Asistentziak % 80koa izan behar du azterketa egin ahal izateko.

Lehenago esan dugun moduan, espian antzera, 1. mailako ikasgelan sartu ginen eta bertan egindakoa behatu eta entzun genuen. Han bizitako guztiarekin bi alderdi nabarmenduko genituzke: ikasleen parte-hartzea, alde batetik, eta irakaslearen papera, bestetik. Irakasleak dinamizatzaile papera hartzen du tarteka, baina ez du inongo unetan irakasleen arteko eztabaida eta iritzi trukaketa eragozten, ezta "gaia ez da hori eta goazen harira" modukorik esaten ere. Ikasleek askatasun osoz hitz egiten dute gaiarekin zerikusia duen edozein alderdiri buruz eta denek hartzen dute parte eztabaidan. Hemen duzue HUHEZI fakultatean entzun eta ikusitakoaren kronikatxoa.

Ikasleei, hirugarren arazoa aztertea egokitu zitzaizkien gu han izan ginen bitartean. *Ikaskidetza I* izeneko saioan, astero bezala, dinamizatzailea eta idazkaria izendatu zituen irakasleak. Aurreko bi asteetan arazo banarekin aritu ziren eta euskal hezkuntza sistemaren ezaugarri nabarmenenak ezagutzen hasi ziren. Hirugarren astean, eremua aldatu zuten eta irakasleak arbelean idatzi zuen moduan, eskola eta gizarteaztertuko zituzten, bi astetan batez ere eskola aztertu ondoren.

Ikasgelan U moduan esertzen dira

eta horrek erraztu egiten du haien arteko komunikazioa. Hori da, saioetan garrantzitsuena: norberak bere iritzia ematea, ezagutza partekatzea eta denen artean gaiari buruz dakitena komunean jartzea.

Saioa hasteko, galdera egin zuen irakasleak: eskolan eskaintzen duguna, gizarteak eskatzen duena al da? Horri erantzuteko, gizarte eremua aztertzen hasi ziren: Euskal Herriko errealitatea eta hezkuntza, hain zuzen ere.

Ariketa praktikoa egin zuten saioarekin hasteko, aurre-ezagutzak identi-

fikatzea baita lehen pausoa. Irakasleak orri zuria banatu zien ikasleei eta dinamizatzaileak arazoa irakurri zien.

Euskal Herriko mapa marraztu behar izan zuten, hasteko, eta bertan, herrialdeak eta hiriburuak kokatu. Ikasle batek Nafarroa eta Iparralde sartu behar ote ziren galdetu zuen eta irakaslearen erantzuna garbia izan zen: "bakotzak ikusiko du Euskal Herria zer den". Tartearen zuten mapa marrazteko, haien artean hizketan aritu ziren eta mapa osatzeko zalantzak zituztela ikusi genuen. Ondoren, arazoarekin bate-

Arazoetan Oinarritutako Ikaskuntza

ra planteatutako galderei erantzuteko tarte izan zuten, banaka lehenik eta taldeka, ondoren. Gero, komunean jarri zuten egindakoa.

Irakasleak galdera batekin hautsi zuen ikasgelako isiltasuna: “nola ikusi duzue zuen burua mapa egiteko?”. Ikasle batek zailtasunak izan zituela esan zuen, mapa ikasi zuela bere garaian, baina ahaztu egin zaiola. Beste batek, Espainiako geografia ikasi zuela eta Euskal Herriko mapa lehen aldiz marraztu zuela esan zuen. Ikasleetako batek Lapurdik kostarik ba ote duen galdetu zuen, eta beste batek bazekien Lapurdik kostaldea zuela baina Zuberora eta Nafarroa Beherea nahastu zituen mapan kokatzean. Ikaskide batek Iparraldea ezagutzen ez duela esan zuen eta ez zekiela herrialdeak mapan kokatzen, beste batek, berriz, Iparraldea bereizirik dagoela esan zuen, Frantzia dela. Irakasleak azken horri galdera egin zion: “zuk zeuk arazorik izango al zenuke Tuterara iristeko?”. Baietz erantzun zion.

Proporzioei buruz ere aritu ziren, Nafarroa egin baitzuten handien eta Iparraldea txikien. Euskal Herria zenbat herrialdek osatzen duten ere aztertu zuten: batek esan zuen zenbaitek sei herrialde aipatzen dituztela, irakasleak erantzun zion beste batzuek diasporaekin zortzi direla esaten dutela.

Galderak komunean jarri zituzten ondoren. Galderak, Euskal Herriko datu orokorre buruzkoak ziren: distantzien gainean gogoeta egitekoa, lehenena. Bigarrena biztanle kopuruari buruzkoa. Hirugarrena, etorkinei buruzkoa, eta sektore ekonomikoei zegokiena laugarrena. Azkenik, bosgarrena, hizkuntza erduei zegokien.

Laugarren galderaren erantzunaren harira, hau da, zerbitzuen sektorea

hazten ari dela, “Guggenheim efektua”ren eragina aipatu zuen irakasleak eta, hortik, Urdaibain beste museo bat egin behar dutela atera zen, ikasle batzuk surf zaleak direla... Irakasleak ez zuen hizketaldi hura moztu gaia hori ez zela esanaz. Kontrakoa, hark ere parte hartu zuen.

Bosgarren galderak, Iparraldea hizkuntza erdueak zein egoeretan dauden galdetzeraz bultzatu zituen ikasleak. Irakasleak azaldu zion alde batetik Seaska dagoela, eta bestetik, publikoan eta giritinoetan ere, irakaskuntza elebiduna badela.

Ereduen gaineko datuak eskaini zituen ondoren irakasleak eta horrek erduek gaineko eztabaidaren gaia ekarri zuen, ikasle batek Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan zer eztabaida ote dagoen galdetu zuelako. Irakasleak Eusko Jaurlaritzan desadostasun politikoa dagoela erantzun zion eta bateratzen saiatzen ari direla, baina zailtasunak daudela.

Ondoren, norberak bere sendoguneak eta ahulguneak zein diren ikusi zuela esan zuen irakasleak, eta ariketatik zer ondorio atera zuten galdetu zion ikasleei. Ikasleek erantzun, errealitatea ez dela pentsatzen zuten modukoa. Batek, esate baterako, Gipuzkoan, D erduan ikasle gehiagok ikasten dutela pentsatzen zuen.

Azken zatian ekin zioten ondoren. Irakaslea albo batera joan zen eta dinamizatzaileak eta idazkariak hartu zuten ikasgelaren ardura. Dinamizatzaileak ikasle bakoitzak ideia bat botatzea proposatu zuen, erronda egin zuten eta idazkariak arbelean idatzi zituen ideiak. Horren ondoren, dinamizatzaileak hartu zuen hitza. Nafarroan galdetuta egin zela esan zuen eta Euskal Herrian sartzeari ezezkoa atera zela. Ikas-

kideek Euskal Herriaren zatiketaren gainean duten iritzia zein den jakin nahi zuen, askotariko ideologiak daudela planteatu zuen eta ea onartzen ote duzun norbaitek euskaldun sentitzen ez dela esatea. Ikaskide batek erantzun zion, abiapuntua dela ez garela herri normalizatu batean bizi, eta beste batek erantzun zion Gasteizen, adibidez, jende askok betebeharrak modura ikasten duela euskara. Euskararen gaineko eztabaida piztu zen horrekin batera, eta parte-hartzea handia izan zen.

Esandakotik atera ziren ideiak irakurri zituen idazkariak, eta hortik landu eta aztertu beharreko alderdi garrantzitsuenak atera zituzten irakasleak lagunduta. Gai horiekin lotuta, bigarren saiorako xedeak zehaztu zituzten:

- 1.- Hizkuntza. Hizkuntzen egoera aztertu.
- 2.- Etorkinak. Etorkinek gizartean duten eragina identifikatu.
- 3.- Herrialdeen egoera /identitatea. Ezagutu.
- 4.- Euskal Herriko errealitate sozio-politikoak. Definitu.
- 5.- Demografia. Aztertu.
- 6.- Sektore ekonomikoak. Ezagutu eta behatu.
- 7.- Transmisioa. Indartu.





Ikaskidetza II saioa

Ostegunean, *Ikaskidetza II* saioan, asteazkenean gaiari zegokion hitzaldia entzun ondoren eta gaiari zegokion informazioa bilatu eta irakurri ondoren, asteleheneko saioan jarritako xedeak aztertu zituzten ikasleek eta arbelean, taula batean bildu zituzten ideia nagusiak. Atalez-atal aztertu zuten guztia eta hauek dira atera ziren ideia nagusiak:

1.- Euskal Herriko egoera soziopolitiko

Euskal Herria bipolarizatua dagoela esan zuten: nazionalistak eta nazionalistak ez direnak aurki daitezkeela. Dinamizatzaileak eazter idatzi zuen galdetu zion ikaskide bati eta horrek esan zion, muturreko bi ideologia daudela, ez dagoela erdibiderik. Euskal Herria osoa anitza dela esan zuten beste batek, baina bi bloke nagusi daudela.

Irakasleak ea euskaldunok politika interesez jarraitzen dugun galdetu zuten eta denetik erantzun zuten, baina iritzi nagusia gazteek politikaz paso egiten dutela izan zen.

Indibidualizatzen ari garela esan zuten beste batek, norbera berean ixten dela eta gainerakoak bost axola zaizkiola. Jendeak politikan parte hartzen du puntu bat arte, bozkatzea doa, baina gero ez da hainbeste inplikatzeko. Hori izan zen beste baten iritzia. Irakasleak soziologoek esandakoa proposatu zuten horren izenburu gisa: gizartea desideologizatzen ari da. Ikaskide batek esan zuten helburua, gizarteak ez pentsatzea dela, politika neoliberalak horra eraman gaituela.

Idea gehiago ere atera ziren gai horren inguruan.

2.- Demografia

Etorकिनен ondorioz, demografia gorantz doala esan zuten, beste zenbait gauzaren artean. Euskal Herriko jaiotze-tasa oso baxua dela ere azpimarratu zuten.

3.- Etorकिनak

Etorकिनek duten eragina aztertu zuten, dinamizatzaileak hala galdetuta. Ekonomiarentzat eragin ona dutela esan zuten eta, horrekin batera, lan "zikinak" kanpokoentzat izaten direla, hemen oso selektiboak garela.

4.- Sektore ekonomikoak

Zerbitzuena sektorerik ugariena dela, eta lan zikinak eta lan garbiak daudela izan ziren gai horren inguruan atera ziren ideia nagusiak.

5.- Hizkuntzaren egoera

Dinamizatzaileak ea euskara desagertu daitekeela uste duten galdetu zion ikaskideei. Batzuek Iparraldean baietz esan zuten, besteek ezetz.

Erabileraren garrantzia azpimarratu zuten, baina kontzientziazioa falta dela uste dute. Euskararekin bigunegiak izan garela esan zuten ikasle batek: "Alemaniara joanez gero, alemanieraz hitz egin behar da. Hemen, zergatik ez?", galdetu zuten.

6.- Identitatea

Transmisioak etxean hasi behar duela uste dute ikasleek eta galdera egin zuten: euskararen eta gaztelaniaren artean, zergatik aukeratzeko dute gaztelania kanpotarrek? Jendeak identitate distorsionatua ekartzen duela esan zuten.

Irakasleak galdera egin zion: "Nola egin transmisioa?". Azkenaldian gizartean gertatu diren aldaketek transmisioan eragin handia dutela erantzun zuten ikasleek, eta komunikabideek eta politikariek jarritako informazio iragazki itzela dagoela.

7.- Iparraldea

Irakasleak Iparraldea ezin dela baztertu esan zuten eta oso hurbil egonda ere, oso urrun sentitzen dugula maiz.

Parte hartzen, informazioa bilatzen, hainbat informazio irakurtzen, norberaren iritziak besteekin partekatzen, eztabaidatzen, konponbideak bilatzen ahalegintzen, taldea dinamizatzen, jendaurrean hitz egiten, behatzen... ikasten dute ikasleek era praktikoan.

Horrekin batera aipatu zuten Hegoaldearen eta Iparraldearen arteko muga ez dela soilik administratiboa, psikologikoa ere badela. Irakasleak ea konponbiderik ikusten duten galdetu zion eta ikasleek erantzun, kohesioa behar dela, herri gisa funtzionatzea.

Azken ideia horrekin amaitu zen saioa eta irakasleak hurrengo astean laugarren arazoa aztertuko zutela aurreratu zuten. Testu bat irakurri beharko zuten ordurako, eta prozesu bera errepikatuko zen, baina beste gai bat lantzeko. Horrela, irakasleak ohiko eskolarik eman gabe, ikasleek gaiak era ariean lantzen dituzte, interesa pizten zaie eta hainbat gai ikasten dituzte. Metodo tradizionala baino askoz eragin korragoa, zalantzarik gabe.

Parte hartzen, informazioa bilatzen, hainbat informazio irakurtzen, norberaren iritziak besteekin partekatzen, eztabaidatzen, konponbideak bilatzen ahalegintzen, taldea dinamizatzen, jendaurrean hitz egiten, behatzen... ikasten dute ikasleek era praktikoan. Lau egunetan aurrerapauso handiak egiten dituzte eta era horretan, kompetentziak garatzen dituzte eta kompetentzietan hezten dira.

elisa

heimovaara

ELKARRIZKETA

Finlandiako Jyväskylä Unibertsitateko irakasle eskolako irakaslea.

// Ikasle batzuek hezkuntza sistema teorikoegia dela diote, eta ez dituela bizitza errealerako prestatzen //



// Azpimarratzen dugun gauzetako bat da irakasleak ez daudela guztiz prestatuta euren prestakuntza amaitzen dutenean, bizitza osoan zehar ikasleak izan beharko luketela, prestakuntza programetan parte hartu beharko luketela, ikerketa egin beharko luketela eta ikasgelan egiten duten lana etengabe aztertu beharko luketela, euren lana egunez egun hobetzeko.



Elisa Heimovaara Jyväskylä Unibertsitateko hezkuntza fakultateko irakaslea da. Ikasleak aukeratzeko batzordeko kidea, hiriko hezkuntza batzordeko kidea eta hezkuntza fakultateko nazioarteko harremanen arduraduna ere bada. PISA azterketetan lortutako emaitza onengatik zabaldu da Finlandiaren izena hezkuntza munduan eta emaitza horien atzean ezkutatzen da, besteak beste, irakasleen prestakuntza. Arreta berezia eskaintzen diote irakasleen prestakuntzari eta irakasle izateko gaitasuna erakutsi behar dute irakasle eskoletan ikasi nahi dutenek.

Baina, azken urtean, hainbeste goraiatu den hezkuntza sistema horren barnean, gertaera larriak izan dira. Bi tiroketa izan dira Finlandiako eskoletan eta horrek talka egin du herrialde horri buruz, bertako hezkuntza sistemari buruz, nazioarteak zuen irudi idealizatua-rekin. Heimovaarari horri buruz galdetuta, hezkuntza sistemak horren ardurarik ez duela erantzun digu, arrazoia arazo psikologiko indibidualetan dagoela.

Bilbon izan ziren *Berrikuntza-rako hezi* izeneko jardunaldietan hartu zuen parte Heimovaarak eta harekin egoteko aukera izan genuen. Finlandiako hezkuntza sistema arrakastatsuen zutabe den irakasleen prestakuntza izan genuen hizketagai nagusi eta baita horrek etorkizunean izango dituen erronkak ere; horien artean, ikasleak bizitza errealerako prestatzea.



Irakasle lanak prestigio handia du Finlandian. Zergatik?

Bitxia da, baina soldatak ez dira oso altuak eta beste alderdi batzuetan bilatu behar da prestigio horren arrazoia. Irakasleen soldata 2.000 euro ingurukoa da, eta Finlandian beste edozein lanbidedetan 2.600 euro inguru irabazten dira, beraz, soldatarik baxuena duen lanbideen artean dago irakasleena. Irakasle lana zaila eta gogorra da, eta egunero agertzen dira zailtasun berriak, behar bereziak dituzten pertsonen kopurua eta arreta indibiduala behar duten ikasle kopurua hazten ari baita, etengabe. Baina uste dut prestigioaren arrazoia, historia tradizionalean dagoela. Finlandiako gizartea nekazaritzan oinarritu zen denbora luzez eta 60. eta 70. hamarkadetan jende asko mugitu zen hiri inguruetara. Landa eremuetan, irakasleak gizartearen gaineko arazoak eta gaiak ezagutzen zituzten pertsonak ziren eta uste dut gerora ere, horri eutsi zaiola, beraz, arrazoia alderdi historiko eta tradizionaletan topa dezakegu. Irakasle izatea gizarteko hierarkian gora egiteko modurik azkarrena izan da, eta jende askok hartzen zuen irakasle izateko erabakia. Baina uste dut, egoera aldatzen ari dela, eta Lehen Hezkuntzako irakasle izateko izena ematen dutenak gero eta gutxiago dira. 17-21 urte bitarteko gazteek, bestelako ideologia dute, haietako askoren ametsa izarrak izatea da, ezagun izatea, eta bide horretan, irakasleen lana ez da hain erakargarria.

Dena den, irakasle izateko hautua egiten dutenek motibazio handia dute, eta eskaera kopuruak behera egin duen arren, urtero irakasle eskoletan

eskaera ugari jasotzen ditugu. Iaz, Lehen Hezkuntzako irakasle ikasketak egiteko 6.000 eskaera izan genituen, jende asko da, eta eskaera horien % 10 edo % 15 baino ezin ditugu onartu. Europako beste herrialde batzuekin alderatuz, arazoa positiboa da, nolabait esatearren. Baina, aukeraketa horretan arrakastarik izaten dugun edo ez, beste kontu bat da.

Irakasleen prestigioaren atzean prestakuntza sakona dago. Zein dira prestakuntza horren oinarri nagusiak?

Hiru dira prestakuntzaren oinarriak: zientzien hezkuntza, ikerketa, eta pedagogia eta didaktika. Denak bateratzen dira, batez ere, teoriarik praktika txertatuz; hezkuntza teoriak eta praktika pedagogikoa uztartzen saiatzen baikara. Ikasleak unibertsitatean etortzen dira eta aste batzuen ondoren, praktika egitera joaten dira lehen aldiz. Han, praktikan jar dezakete unibertsitatean ikusi duten teoria, eta ondoren, unibertsitatean bueltatzen dira eta praktiketan egindakoa aztertzen dute; galderak egiteko aukera dute, topatu dituzten



arazoen gainean hitz egiteko aukera... Praktikak egiteko leku garrantzitsuenetakoak gure irakasle eskolak dira. Prestakuntzarako sail bakoitzak es-

kola bat du unibertsitatearen barnean eta hor egiten dituzte praktikak ikasleek. Udal eskolak ere erabiltzen ditugu irakasleen praktikarako, baina irakasle eskola oso leku egokia izaten da esperimenterako eta ikerketarako. Eta hala adierazi zuen baita ere Hezkuntza ministerioak 2007ko abuztuan argitaratutako txostenak. Izan ere, horren arabera, irakasle eskolak ikerketarako eta metodologia berriak esperimenterako leku gisa erabiltzeak, garrantzi handia du.

Uztartetarako beste elementu bat, ezagutza pedagogikoa eta ikasgai bakoitzaren gaineko ezagutza bateratzen direla da. Ez da nahikoa frantses irakasle batek frantsesa jakitea, frantsesa nola irakatsi ere jakin behar du. Azpimarratzen dugun gauzetako bat da irakasleak ez daudela guztiz prestatuta euren prestakuntza amaitzen dutenean, bizi-tza osoan zehar ikasleak izan beharko luketela, prestakuntza programetan parte hartu beharko luketela, ikerketa egin beharko luketela eta ikasgelan egiten duten lana etengabe aztertu beharko luketela, euren lana egunez





E

// **Eta, zer da neurtu nahi duguna? Hautagai bakoitzak irakasle izateko gaitasun nahikoa ba ote duten. Gure eskolan, elkarrizketa pertsonala eta test psikologikoa egiten ditugu sarrerako frogetan. Badirudi, tabu antzeko bat dela irakasleak aukeratzeko mota horretako testak erabiltzea, baina test psikologiko horrekin, irakasle ona izateko gaitasuna duten ikasleak zein diren ikusten saiatzen gara**

//

egun hobetzeko.

Irakasleen prestakuntza ikerketan oinarritzen da. Hezkuntza arloko ikerketa erabiltzen dugu eta azken txostenen emaitzen arabera, ikasleak euren ezagutza prozesuen gaineko perspektiba zientifikoa izatera gonbidatzen ditugu.

Boloniako prozesua sartu zenetik, bi ziklotan banatzen dira ikasketak: ikasgai nagusia hezkuntza da, eta amaieran ikerketalana egin behar dute. Diziplinarteko ikasgaiak ditugu eta baita ikasgelan ematen diren ikasgaiak ere: matematikaren didaktika, fisika, musika... Ikasgai bat aukeratzen dute eta horretan espezializatzen dira.

Praktikaren garrantzia aipatu duzu. Zenbat denbora eskaintzen zaie praktikei?

Bi eta zazpi aste bitartean ematen dituzte eskolan irakasle praktikak egiten, bost alditan. Zaila da kalkulatzeko, baina esango nuke, ikasketek irauten duten bost urtetan, urte erdi inguru ematen dutela ikasleek praktiketan, betiere, ikaslearen arabera eta praktikaren arabera. Ikasten dutena, gero emango duten ikasgaiak da. Hau da, norbaitek frantses irakaslea izan nahi bada, frantses sailean eskatzen du lekua. Hor, frantsesa izango du ikasgai nagusi moduan eta ondoren, bigarren mailako ikasgai moduan, formazio pedagogikoa egingo du irakasle titulazioa lortzeko.

Irakasleak, ez dira soilik ezagutzaren transmisore, komunitatearekin batera lanean aritzen dira. Nola prestatzen dituzue

irakasleak horretarako? Ba al da prestakuntza berezirik?

Nik uste dut haiek egiten duten gauza bat dela. Unibertsitateak Finlandian ardura batzuk ditu, ikerketa egin behar du, eta komunitatea eta gizarteak elkarrekin egotea bultzatu behar du. Irakasleak prestatzeko programak azpimarratu egiten du elkarlanaren garrantzia, eta irakasleen belaunaldi berriak elkarlanerako prest egon behar du.

Zer sistema erabiltzen duzue irakasle eskoletan ikasleak hautatzeko?

Irakasle eskoletan ikasle onenak hartzen dira, etorkizunean Finlandiako eskoletan irakasle onenak izateko helburuz. Finlandiako sisteman unibertsitateak erabakitzen du zer eta nola ebaluatuko den ikasleak hartzeko probetan.

Lehen Hezkuntzako ikasleen kasuan, azken urteetan aldaketak izan dira sisteman. Lehen, Bigarren Hezkuntzako emaitzetan oinarritzen ginen, eta ikasleek puntu gehigarriak lor zitezaketen, adibidez, soldaduskarekin edo urrutiko unibertsitatean egindako ikastaroekin... Baina orain, sail bakoitzak ezartzen ditu irizpideak. VAKAVA da sistema berriaren laburdura eta serioa esan nahi du, suomieraz. Sail guztietan azterketa bera egiten da egun berean eta ordu berean, eta Bigarren Hezkuntzako emaitzek jada ez dute halako garrantzirik, nahiz eta gaitasun testarekin batera, sail batzuek aurreko azterketen emaitzak kontuan hartu.

Eta zergatik ikusi duzue sistema aldatzeko beharra?

Hainbat arrazoiengatik. Garrantzitsuenetakoa bat izan zen gure aurreko sistema emaitzetan oinarrituta zegoenez, Bigarren Hezkuntzan emaitza oso onak izan ez zituzten eskatzaile askok ez zutelako aukerarik irakasle onak izateko gaitasun nahikorik zuten edo ez erakusteko. Beraz, ezin zuten frogetara sartu. Puntu gehigarri horiek, bestalde, eskatzaile zaharrenei egiten zieten me-

sede eta horrek Hezkuntza Ministerioan arduratu zuen, ikasketak egiten zizuten ikasleen batez besteko adina 23-24 urtekoa zelako. Bost urteko formazioa behar da, eta 29-30 urterekin amaitzen zizuten ikasketak. Finlandiako egoera ekonomikoa kontuan hartuta, hori arduratzekoa zen eta eskatzaile gazteenei mesede egingo zien sistema behar genuen. Horrela, alde batetik, ikasle gazteagoak eta irakasle gazteagoak izango genituen, eta, horrekin batera, gizon kopurua igo nahi genuen, normalean, Bigarren Hezkuntzan, mutilek ez dituztelako neskek bezain nota onak izaten.

Goizegi da sistema berriak funtzionatu ote duen esateko, bi urte besterik ez baitaramagu sistema horrekin, baina badirudi Bigarren Hezkuntza amaitu eta berehala izena ematen dutenen kopurua gora egiten ari dela. Hala ere, mutil gutxi dago, soldata oso ona ez denez, gizona gehiago lor dezaketen beste lanbide batzuk aukeratzeko baituzte.

Edozein probarekin zer ebaluatu behar dugun zehaztu behar dugu lehenik. Eta, zer da neurtu nahi duguna? Hautagai bakoitzak irakasle izateko gaitasun nahikoa ba ote dute. Gure eskolan, elkarrizketa pertsonala eta test psikologikoa egiten ditugu sarrerako frogetan. Badirudi, tabu antzeko bat dela irakasleak aukeratzeko mota horretako testak erabiltzea, baina test psikologiko horrekin, irakasle onak izateko gaitasuna duten ikasleak zein diren ikusten saiatzen gara eta entzuteko gaitasuna, desberdintasunak jasateko gaitasuna eta gatazkak bideratzeko gaitasuna nork duen ikusten dugu. Izan ere, batzuetan irakasleek hitz egiteko joera dute entzule izateko baino gehiago, eta ez da posible irakasle onak izatea entzun gabe, elkarrekintza hori egon gabe.

Berrikuntza horiek eta gizartea aldatzen ari dela kontuan hartuta, zein dira Finlandian irakasleen prestakuntzak eta hezkuntzak orokorrean dituen erronkak?

PISAren emaitzak oso onak izan dira baina OCDEkoek erakusten dutegure irakasleek eskolan ez dutela gozatzen. Ez da soilik hezkuntza sistemaren ardurara, eskolaren ardurara da, jakina, baina gizaratean badira beste arrazoi batzuk. Irakasle batzuek hezkuntza sistema teorieko gaitasuna dela diote, eta ez dituela bizitza

errealerako prestatzen, irakasle lana egitera joaten direnerako. Beraz, praktika luzeagoak eskatzen dituzte eta eskolatan lanean ari direnerako mentoreak izatea.

Bestalde, titulazio gehiago behar dira eta irakasleok gaitasun gehiago behar dugu aholkularitzarako, kultu-



elisa heimovaara

E

// Ikasleei pentsarazi behar zaie, ez zaie erakutsi behar gauzak nola egin, baizik eta “zergatik?” galdetu. Zergatik egiten dituzu gauzak era horretara? Nola hobe zenezake zeure lana? Nola hobe ditzakezu irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak ikasleei ahalik eta emaitza onenak lortzen laguntzeko? Eta baikorrak izatea ezinbestekoa da.

//

rarteko hezkuntzarako edota heziketa berezarako. Gainera, udalek diru falta dutela eta, eskolak ixten dira, taldeen tamaina gero eta handiagoa da, gizarteko kultura aldatzen ari da eta gero eta indibidualistagoa da. Ikusteko dago horrek guztiak zer eragin izango duen. Datozen urteetan eskatzaile gutxiago izango ditugu geure programetan eta geratzen den galdera da: zer egin dezakegu?

Eta, nola ikusten duzue?

Alde batetik, beharrezkoa da ikasle onenak aukeratzea, bestetik, egoera datorren bezala hartu behar dugu eta jendeak ikusi behar du irakasle izatea ez dela erraza, baina ez dela ametsgaiztoa. Ikasleei pentsarazi behar zaie, ez zaie erakutsi behar gauzak nola egin, baizik eta “zergatik?” galdetu. Zergatik egiten dituzu gauzak era horretara? Nola hobe zenezake zeure lana? Nola ho-

be ditzakezu irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak ikasleei ahalik eta emaitza onenak lortzen laguntzeko? Eta baikorrak izatea ezinbestekoa da.

Esan duzunez, ikasleek eskolan ez dute gozaten eta horren adibiderik gordinenak dira, agian, azken urtean Finlandiako bi eskoletan izandako tiroketak. Zer uste duzue dagoela horren atzean?

Zaila da Finlandiako eskoletan gertatu diren tiroketak zergatik gertatu diren esatea. Uste dut, arazo psikologiko indibidualen fruitu dela hezkuntza sistemaren ondorio baino gehiago. Nerebeek ez dute beren sentimendu negatiboak kanporatzeko aukerarik ikusten, eta baliabide asko behar dira ikasleek nora jo eduki dezaten eta norekin hitz egin izan dezaten: psikologoak, erizainak, medikuak, heziketa bereziko langileak, aholkulariak... Kultura aldake-





taren ondorio da, eta oso zaila da. Bestalde, nire iritziz gezurra da ikerketa batzuek diotena; telebistako eta bideojotako indarkeriak gazteengan eraginik ez duela, alegia. Horien eragina nabarmena dela uste dut.

Arma asko dago Finlandian. Horiek eskuratzeko erraztasuna izan al liteke beste arazoietako bat?

Bai, hala da. Eta gertatutakoaren ondoren, armei buruzko legedia estutuko dutela uste dut. Finlandian ehizak tradizio handia izan du, Iparraldetik Hegoaldera baso asko baitago. Baina ez dut ulertzen 18-19 urteko gazte batek 22 kalibreko pistola bat edukitzeko aukera izatea, hori ez baita ehizarako. Ados nago legea zorroztearekin.

Suomiera bultzatzeko eskolak izan duen egitekoa azpimarratu du Heimovaarak: "Oso garrantzitsua izan da eskolak suomiera indartzeko eta ezagutarazteko egin duen lana, jakina. Ikasle gehienek etxeko hizkuntza den arren, eskolan egoki nola erabili ikasten dute, irakurtzen eta idazten ikasten dute... Dena den, suomierako azterketak egiten direnean, emaitzak okerragoak dira orain. Immigrazioa hazten ari da eta haiek ez dute suomieraz hitz egiten, eskolak paper garrantzitsua du etorri berriek hizkuntza ikas dezaten". Irakasleen formazioan ere, suomierak eskari handia du historiarekin edota ingelesarekin batera, baina matematikak edota natur zientziak ez dira hainbeste eskatzen Heimovaarak esan duenez, eta zailtasunak dituzte beharrezko irakasle kopurua erakartzeko. Dena den, joera hori gaur egun Europako herrialde gehienetan errepikatzen dela dio, eta kezkatzekoa dela.

Ikaskuntza emozionala eta soziala Eskolan lekua aurkitu nahian

Roger P. Weissberg Psikologia eta Hezkuntzako irakaslea da Illinoisko Unibertsitatean, Chicagon (AEB). Ikaskuntza Sozioemozionalari buruzko Elkarte Akademikoko (CASEL) presidentea ere bada. Elkarte horrek ebidentzian oinarritutako ikaskuntza soziala, emozionala eta akademikoa eskolaurretik unibertsitatera arteko hezkuntzaren zati garrantzitsu bilakatzeko konpromisoa du. Euskal Herriko Unibertsitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentuak (duela hiru urte, etengabeko ikaskuntzaren alorrean jakintza eta adimen emozionalaren gaineko jarduera abian jarri zuenak) Donostian antolatutako "Bizitza osoko ikaskuntza emozionala eta soziala" izeneko jardunaldiaren parte hartu zuen Weissbergek, eta han esandakoaren laburpena ekarri dugu orriotara. Ikaskuntza emozionala eta soziala bultzatzeko lan gogorra egin behar dela dio Weissbergek, baina, politikarien babesarekin, errazagoa dela ikasleak etorkizunerako positiboa izango den era batean hezte.



Roger P. WEISSBERG

PSIKOLOGIA ETA HEZKUNTZAKO IRAKASLEA

ILLINOISKO UNIBERTSITATEAN

Oso garrantzitsua da eskolan ikaskuntza emozionalari eta sozialari lekua egitea, eta kontuan hartu behar ditugu gure ikasleek institututik irtetean izan behar dituzten ezaugarriak.

Mundu osoan, ikasleek arazoak euren kabuz konpontzen jakitea lortu nahi dute pertsona gehienek, erabakiak egoki hartzen jakitea, gatazkak saihesten jakitea, gurasoekin enpatia sentitzea, mundua toki hobea izan dadin lan egitea... Ez dut uste guraso gehienek nahia euren seme-alabek ge-

ometria era perfektuan menderatzea denik; oro har, nahiago dute gaitasunak emozioen alorrean lantzea. Guk egiten dugun galdera hau da: nola antola dezakegu komunitatea, ikasle guztiek helburu horiek lor ditzaten? Ikasleekin, irakasleekin, gurasoekin, komunitatearekin aritzen gara elkarlanean, eta horrela, sustatu behar diren gaitasunak zein diren ziurtatzen dugu. Era sistematikoan egiten dugu lan, eta ondoren, planak ebaluatzen ditugu, egoki diseinatu ote diren jakiteko. Programen diseinua oso garrantzitsua da, eta kontu handiz egin behar da.

Batzuetan, ardurak sortzen dira, indarkeriari buruz hitz egiten da, *bullyingari* buruz, genero indarkeriari buruz... Gu, lehenik, gazte horiek gizartearen duten portaeraz zein den ikusten saiatzen gara. AEBn oso kezkatuta gaude, gazteen alkohol kontsumoagatik edo estres emozionalagatik. Badira bere buruaz beste egitea pentsatu duten gazteak ere. Ikastetxearekiko konpromisoa falta dute, interesa falta dute. Arazo horiei aurre egiteko, zenbait ikaste-

txetan programa zehatzak lantzen dituzte: hiesari aurre egiteko heziketa, *bullyingaren* prebentziorako heziketa, indarkeriaren prebentziorako programak... Baina, jakina, hori guztia asmo onarekin egiten den arren, berez, iraina da. Zeren, asmoa oso ona baita: epaileekin, gurasoekin nahiz komunitatearekin koordinatuz egiten dira horrelako lanak. Baina, batzuetan, helburua arazoak saihestea da, arazo horiek errotik aldatu beharrean eta diziplina jakin bat landu beharrean, ezaugarri eta gaitasun onak nola sustatu pentsatu beharrean... Jende askok txarra dena saihesteko egiten du lan, baina ez du ona sustatzeko lanik egiten.

Horrelako lanak era sistematiko eta globalean planteatu behar ditugu. Gaztea osotasunean hezi nahi duen ikastetxeak arlo akademikoa kontuan izan behar du, baina baita ikaslearen buru osasuna eta ikasleak pertsona gisa prestatzea ere.

Ikaskuntza emozionalak eta sozialak zenbait gaitasun irakasteko modua eskaintzen du; autonomia, autoges-

tioa, kontzientzia soziala, harremanetarako gaitasuna eta erabakiak arduraz hartzea. Eta dituen gaitasunak ezagutzen dituen gazteak helburu horiek lortzeko lan egin dezake. Norberaren buruarengan, besteengan eta erabakiak hartzean oinarritzen gara.

Ikaskuntza emozionala eta soziala behar den moduan egiten direnean, bi elementu gailentzen dira: bata ikaskuntza, eta bestea, ikasleek gaitasun horiek curriculumean era sistematiko-anikastea. Adibidez, zerbait egin aurretik pentsatu egin behar dutela ikasten dute ikasleek. Arazoa zein den ikusi behar dute, helburu positiboa jarri behar dute, eta irtenbideetan pentsatu, aurrerajartzeko. Oso mekanika interesgarria da, eta gazte askok menderatzen dute, baina beste asko ez dira fase horretara iristen. Hori guztia egunerokoa aplikatzen ote den ikusi behar dugu. Arazo bat dagoenean, eztabaidan hasi edo ikasleak zigortu beharrean, egotzen gainera hausnarketa egitera eta pentsatzera bultzatzen gaitu horrek, eta etorkizunean horrelako egoerak nola kontrola ditzakegun erakusten digu.

Curriculumak alde batera utzi gabe

Curriculum akademikotik abiatu behar dugu, baina irakasleek gaitasun horiek garatzeko lan egin behar dute. Kontua ez da beste curriculum bat egitea, eta egunean hamar minutuz lantzea, jarduera guztietan egon behar du presente ikaskuntza emozionalak eta sozialak, zehar lerro modura. Horrela, ikasleek gaitasun horiek erabiliko dituzte, baita eskolaz kanpoko jardueretan ere. Ingurune ziurra behar dute horretarako, eta esperientzian eta elkarlanean oinarritutako estrategiak erabili behar dituzte. Oso garrantzitsua da familiek eta komunitateak parte hartzea. Beraz, ikaskuntza emozionala desafio bat da hasieran, hizkuntza komuna be-

har delako, helburu komunak..., eta hezkuntza sistema osoaren gai izatera heldzen da. Hori gertatzen denean, emaitza positiboak lortuko dituzte, akademikoki arrakasta handiagoa izango dute, buru osasun eta osasun fisikoa hobea izango dute, harreman sozial positiboagoak, ikasleek konpromiso handiagoa hartuko dute... Emozioak presente daude ikasten dugun horretan, eta gaitasun horiek irakats daitezke, gazteak egunerokoa aplikatzen joateko.

AEBn, programa horrek eragin positiboa izan duela ikusi dugu. Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan... prestakuntza egokia bada, emaitza polita izan daiteke, baina ikasturte osoan eta ikaskuntza osoan berrikusten joan behar da, era egokian bultzatu behar dira, eta beharrezkoa da epe luzerako ikuspegia izatea.

Programa horien eragina ez da ikasleengan mugatzen, irakasleengan ere iristen da. Irakasleek ikasleekin komunikatzeko gaitasuna garatzen dutela ikusten dute, eta euren bizitzako arazok hobeto kudea ditzaketela.

Hori guztia egiteko, jakina, babesa eman behar dute politikariek, eta profesionalen lidergoa behar da, ikasgeletan egiten dena era egokian egiteko. Illinoisen, estatuak ikaskuntza emozionala eta soziala 4.000 eskolatan ohiko ikaskuntzaren zati moduan sartu duela ikusi dugu. Beraz, arlo akademikoan indarra jartzen da, baina badira ikaskuntza emozionalarekin eta sozialarekin zerikusia duten helburuak ere: autogestioa, autonomia izatea, autokontzientzia, pertsonen arteko gaitasunak... Irakasleek hori bultzatzen dela ziurtatu behar dute, eta laguntza eskaintzeko programa bereziak egiten dira. Programa horiek koordinatu egiten dira, gainera, portaera arazoak dituzten ikasleen programekin, edo esku-hartze goiztiarra behar dutenekin.

Beraz, eskola irudikatzen dugunean, ikasgeletako ikaskuntza emozionala eta soziala dugu buruan, baina baita autobusean, jolas orduan, komunetan, eskolaz kanpoko jardueretan... lan-

Ikasle arrakastatsuak izateaz gain, eskolari, familiari, komunitateari, ekarpen positiboa egin diezaioketen gazteak nahi ditugu. Denak elkarlanean jarri nahi ditugu, komunitatea eta mundua hobek izateko lan egin dezaten.

tzen dena ere; ez da soilik emozio bartzuk irakastea, emozio horiek eskola eremu guztietan kontuan hartzea baidzik.

Ikasle arrakastatsuak izateaz gain, eskolari, familiari, komunitateari, ekarpen positiboa egin diezaioketen gazteak nahi ditugu. Denak elkarlanean jarri nahi ditugu, komunitatea eta mundua hobek izateko lan egin dezaten.

Ikaskuntza emozionala eta soziala prozesu bat da, eta prozesu horren bitartez, haurrek eta helduek oinarritzko gaitasun sozialak eta emozionalak garatzen dituzte. Eskoletan horrelako programak abian jartzen direnean, ikasleek eskolarekin duten jarrera hobetzen dela ikusten dugu, haurren portaera hobetzen dela, eta euren errendimendu akademikoa hobetzen dela. Bizitzan zehar arrakasta handiagoa izateko oinarriak finkatzen ditu horrek guztiak. Programa horiek ongi diseinatuta egon behar dute, eta eskolan ongi txertatu behar dira.

Ikaskuntza emozionala lortzeko, elementu hauek dira beharrezkoak, gure ustez:

- Politikak. Beharrezkoa da komunitateko lidergo politikoak gai horrekin konpromisoa hartzea.

- Zuzendariak. Eskolako hezkuntza lidergoak konpromisoa hartu behar du.

- Garapen profesionala. Irakasleekin egiten dugu lan, haien prestakuntzarako.

- Gizartea. Beharrezkoa da gizarte osoak gauza beraren gainean lan egitea, emaitzak onak izan daitezken.

Informazio gehiagorako: www.casel.org

Lasarte-Usurbil BHI Sagardotegiko menua aztergai

Txoooo! entzunda, upelara hurbildu beharrean, laborategira gerturaten ziren iaz Lasarte-Usurbil BHI institutuko ikasleak. Izan ere, gurean hain ohikoa den sagardotegiko menua aztertu zuten Batxilergoko 1. mailako ikasleek, Mikel Martinez irakasleak lagunduta. *Experimentaldia* azokan aurkeztu zuten egindako azterketa. Jaten dugun horren atzean zer ezkutatzen den erakutsi ziguten; arrautza, haragia, muztioa eta esnekiak aztertu zituzten. Ikasleak eta irakaslea gustura aritu ziren lanean.

Sagardotegiko menua aztertu, eta aplikazio praktikoa egin dute Lasarte-Usurbil BHI institutuko Batxilergo Zientifikoko ikasleek, *Laborategi Teknikak* izeneko ikasgaietan. Arrautza aztertzen hasi ziren; lehenik, zuringoaren eta gorringoaren koagulazioa, hain zuzen. Gero, alkohola erabiliz aztertu zuten, eta temperatura beroarekin eta ur gaziarekin baita ere. Zuringoaren proteinak gogortzen eta koagulatzen nola joan ziren ikusi zuten.

Haragiaren kasuan, berriz, puntu egokia aurkitzen saiatu ziren; egiteko





denborak aztertu zituzten, eta, kanpotik haragia zapoetsua izan dadin eta, aldi berean, samur gera dadin, tenperaturarik egokiena zein den zehaztu zuten. Haragia ongi egitea zaila dela esan zigun Mikel Martinez irakasleak, plan-txa oso bero izatea komeni delako, baina barrutik haragiak ez duelako erre behar. Oreka bilatu behar da, eta horretan saiatu ziren ikasleak.

Muštioaren hartidura ere egin zuten, eta esnekiak aztertuz, esnearen osagaiak bereiztu zituzten; gantzak, proteinak eta karbohidratoak. Gaztaren proteinekin itsasgarria egin zuten; itsasgarri zuria da, klasikoa, eta horrela egin daiteke. Eta aplikazio praktikoa ere egin zuten: izozki beroa lortzen saiatu ziren.

Bi hilabeteetan landu zuten guztia. *Laborategi Teknikak* ikasgaia hautazko ikasgaia da, eta, batez ere, kimikaren ikuspuntutik egin zituzten azterketak. Bederatzi ikasle aritu ziren iaz ikasgai horretan, eta elikadurarekin zerikusia zuen eta berezia zen zerbait egin nahi izan zuten; sagardotegiko menua aztertzea bururatu zitzaion, eta halaxe egin zuten. Horrela, sukaldean gertatzen den gehiena kimika dela ikusi dute.



Durangon zain izango gaituzu!



Aurkitzen ez badituzu, eskatu gure web orrian:

www.gaiak.net

Ipuinak geletan Ametsei atek zabaltzen



Bea MEDRANO

HEZKIDETZA ARLOKO IKERLARIA

Ipuinen eragina azpimarratu du Bea Medrano ikerlariak artikulu honetan. Esaten duenez, ipuinak askatzaileak izan daitezke haurrentzat, baina baita mugatzaileak ere, sexu bakoitzarentzat rol, gaitasun eta portaera estereotipatuak markatzen badituzte. Haur literaturak berdintasunerako bidea zabal dezakeela azpimarratzen du Medranok, eta ipuinak aldatzea errealitatea aldatzea baina errazagoa denez, urratsak hortik ematen has gaitzkeela dio.

*Erase una vez un lobito bueno al que
maltrataban todos los corderos
Había también un príncipe malo, una
bruja hermosa y un pirata honrado.
Todas esas cosas había una vez
Cuando yo soñaba un mundo al revés.*
José Agustín Goytisolo

Behin, bost urteko haurren gela batean, inauterietan jantziko zuten mozo-
roei buruz hitz egiten ari ginela, hara!,
sexuen araberako banaketa argia

eman zen, nesken artean maitagarri
edo printzesa mozo-
orroak ziren aukera-
tuenak, mutilentzat berriz, super he-
roiak. Aukera horretan fikziozko per-
sonaiekin eta osatzen duten ezauga-
rriekin identifikatzen ari ziren eta ho-
rrek, jendarteak haur bakoitzarentzat
marraztu duen bidea islatzen du.

Haurren aukera hori baldintzatu
duten eragileak eta faktoreak asko ba-
dira ere, nik ipuinen eragina azpima-
rratu nahiko nuke. Ipuinetan gauza zo-
ragarriak gertatzen dira, irudimena bul-
tzatuz mundu fantastikoekin amets
egitera gonbidatzen gaituzte, edo ja-
kinmina piztuz ondoan dugun erreali-
tatea ezagutarazten digute. Ipuinak as-
katzaileak izan daitezke haurrentzat,
baina baita mugatzaileak ere, sexu ba-
koitzarentzat rol, gaitasun eta portaera
estereotipatuak markatzen badituzte.

Neska eta mutilen identitatearen
eraikuntzan generoak agintzen dituen
arauak, eta ondorioz sortzen diren des-
berdintasunak gainditu nahi baditugu,

ipuinak ere aztertu beharko ditugu, txi-
ki txikiak garenetik haien bidez me-
zuak jasotzen ari garelako. Ipuina alda-
tzea errealitatea aldatzea baino erraza-
go delako, urratsak hortik ematen has
gaitzke.

Baina, zer da ipuin sexista?

Erantzuna ematea baino hobea
izango da norberak bere diagnostikoa
egitea. Horretarako, erabiltzen ditugun
ipuinak hartu eta aztertu beharko ditu-
gu.

Zeri erreparatu behar diogu?

Irudiekin has gaitzke; irudiari be-
rebiziko garrantzia eman behar zaio 0
eta 6 urte bitarteko haurren ipuinetan.
Adin horietan irudiak testua baino in-
dar handiagoa dauka, begietatik arina-
go sartzen baita informazioa.

Baloratzeko, irudiak zenba ditza-
kegu:

- Zenbat neska/emakume daude?
- Protagonistak dira, edo bigarren mailakoak?



- Zer egiten agertzen dira? Non daude?

- Nolakoak dira fisikoki? Nola daude jantzita? Zelako edertasun ereduak islatzen dute?

Eta mutilekin/gizonekin gauza bera egingo genuke.

Istorioari dagokionez, antzeko prozesua egin behar dugu:

- Zein da protagonista? Neska al da? Mutila al da? Zer egiten du?

- Zer egiten dute neskek/emakumeek istorioan? Nolakoak dira? Eta mutilak? Nolako amaiera dauka? Zein da emakumearen paper amaieran? Zein da mezua?

Eta, pertsonaiak animaliak badiira?

Lehenago egin dugun modura, begiratu ea animaliak rol femeninoetan eta maskulinoetan agertzen diren, eta bakoitzari zer nolako ezaugarriak egokitzen zaizkion.

Galdera horiei erantzunez pertsonaia maskulino eta femeninoen bidez genero estereotipoak bultzatzen ari direla, eta, ondorioz, bai neskentzat, baita mutilentzat ere duak mugatzaileak direla ikusten baduzu, ipuina sexista dela ondoriozta dezakezu.

Eta ditugun ipuinak edo haurren gustukoak direnak oso egoikiak ez direla iruditzen bazaigu, zer egin dezakegu? Sexista den liburu bat erabil dezakegu? Edozein ipuin izan daiteke baliagarria. Tradizionalean, adibidez, genero rola eta estereotipoak oso markatuta dauden arren, hor agertzen dena zalantza jar dezakegu, ipuinari beste amaiera posible bat emanaz, ipuin batetik beste ipuin batzuk sortuz (non rol tradizionalak kolokan jartzen diren), pertsonaiei sexua aldatuz eta ea zer gertatzen den ikusiz, haur bakoitzak pertsonaia bat



hartu eta egoera horretan zer egingo lukeen asmatuz, ipuina gaur egungo errealitatearekin alderatuz...

Ipuina aukeratu beharko bagenu, zeri erreparatu beharko genioke?

Hurrengo puntuetan kontuan hartzeko irizpide batzuk agertzen dira:

- Nesken eta emakumeen paper aktiboak.

- Emakumeak hainbat lanbidetan, arrakasta duten amak, kirolean ausartak...

- Emakumeen edo neskatilen ametsa ez izatea beti printzea edo mutila topatzea, beste mota bateko helburuak agertzea.

- Sentimenduak adierazten dituzten mutilak eta gizonak, borroketan beldurtzen direnak, lehia gustuko ez dutenak edo autoa konpontzen ez dakite-

nak. Etxeko lanak betetzen dituztenak.

- Etxeko lanetan aritzen diren seme-alabak.

- Bizitza propioa duten amak eta amamak, lagunekin ateratzen direnak.

- Beste familia ereduak, aniztasuna, bikote homosexualak, ama-seme alabekin, aita seme-alabekin.

- ...

Zer ez dugu egin behar?

- Neskak eredu maskulinoan murgildu eta feminitatearen ezaugarriak baztertu.

- Genero desberdintasunak gaitzitzen saiatu eta beste desberdintasunei eutsi.

Haur literaturak berdintasunerako bidea zabaltzeko eta bultzatzeak haurrek pertsona eredu berri baten erreferentzia izateko.

galdeidazue


Zer egin dezakegu ikasleek hau galdetzen dutenean: zergatik hitz egin behar dugu euskaraz, gaztelaniaz edo frantsesez denok elkar ulertzen badugu



Henning Mankellen “Lehoi emezuria” nobelan horrela hitz egiten du Hego Afrikako zulua den pertsonaia batek: «Ni zulua naiz. Behatz bat ebaki didate. Hala ere, mina jasan dezaket, eta beste bederatzi behatz badituz oraindik, txakalak dituen bizitzak beste. (...) Nire behatz bat gabe bizi ninteke baina, nola biziko naiz nor naizen jakin gabe?»¹.

Pertsonaia horrek, hemen agertzen den behatz mozketaren aurretik, bortxakeria asko jasan behar izan ditu: nagusiki beltza izateagatik, eta baita zulua eta pobrea izateaz gain, zuleraren orde zuriaren afrikaansera ikasi eta hitz egitera behartua izan delako.

Munduan jende asko behartzen da berea baztertu eta beste hizkuntza bat ikastera. Herrialde atzeratueta bezala aurreratueta ere, norberarenak ez diren hizkuntza eta kultura nagusiak gainjartzen dira txikien eta, askotan,



Itziar IDIAZABAL GORROTXATEGI

EHU-UPV-KO EUSKAL FILOLOGIAKO KATEDRADUNA ETA
MUNDUKO HIZKUNTZA ONDAREAREN UNESCO
KATEDRAREN ARDURADUNA

bertakoen gainera. Ez dago hizkuntza edo kultura txikiak, berez edozein hizkuntzak balio baitu edozertarako, baina gutxitu, menperatu, baztertu arazi egiten dira batzuetan bortxaz, bestetan

axolagabekiaz. Eta zaila da egoera horietan nortasuna ez galtzea.

Euskal Herrian - eta ez da erraza nola gertatu den jakitea - bertako hizkuntza mantendu egin da milaka urtetan. Eta bakarra izan da bere inguruan hain aspalditik iraun duena. Beti egon da beste hizkuntzez inguratua eta haiekin harremanetan, baina mantendu egin da. Askotan egon da galtzeko zorian eta orain ere arriskua badago, gehienentzat zaila baita euskaraz hitz egitea. Leku askotan gaztelaniara edo frantsesera pasa behar duzu ondokoak euskaraz ez dakielako, edo ez dakiela uste duzulako. Hain gutxi entzuten eta egiten da euskara kalean, autobusean, dendetan, festetan...!

Egia da, askotan, jakinda ere, erdaraz egiten dugula, errazago egiten zai- gularako, gehiago korritzen duelako... Eta badakigu erabiltzen ez den hizkuntza hil egiten dela.

Gaur, etxean ikasten ez duenak, eskolan ere ikas lezake euskara. Euskal Herrian jende asko ari da euskara ikasten hala nahi izan dugulako, hizkuntza politika zehatz bat garatu dugulako. Bai baitakigu gaur egun, batzuek etxean eta haur txikiekin euskaraz egin arren, gehienek eta gauza gehienetarako erdara erabiltzen badute azkar desager daitekeela euskara bezalako hizkuntza bat.

Etengabe ari dira desagertzen hizkuntzak haien azken hiztunak hiltzearekin batera. Munduko hizkuntza asko ez dira gurasoengandik seme-alabetera igarotzen, ez dira erakusten: inguruko edo gainjarri zaien beste hizkuntza zabalduago batek hartzen du norberaren hizkuntzaren lekua. Goizetik gaue-ra ez da gertatzen, eta ez da fenomeno berria ere, baina gaur inoiz baino azkarrago, eta mundu osoan ari da gertatzen hizkuntzen ordezkapena. Eta oso hizkuntza gutxi dira geroz eta jende gehiagoren hizkuntza bakar bihurtzen direnak, tartean, ingelesa eta espainola dira indartsuenetariokoak.

Alabaina, denentzat baliagarria den hizkuntza bat ikasiz ez da arazoa kontopontzen. Begira zer dioen Coetzee, Hegoafrikar Nobel sariak bere “Disgrace” nobelari ingelesaren gaitasunei buruz:

*“Doubtless Petrus has been through a lot, doubtless he has a story to tell. He would not mind hearing Petrus’s story one day. But preferably not reduced to English. More and more he is convinced that English is an unfit medium for the truth of South Africa. Stretches of English code whole sentences long have thickened, lost their articulations, their articulateness, their articulatedness. Like a dinosaur expiring and settling in the mud, the language has stiffened. Pressed into the mould of English, Petrus’s story would come out arthritic, bygone”.*² Petrus, Hego Afrikako shonera hiztuna eta nekazaria da.

Kontua da, eta ondo dakigu euskaldunok hori, hizkuntza batekin baino hobeto bizitzen dela bi, hiru edo hizkuntza gehiago jakinez gero. Zeurea, zeurea duzulako eta besteak inguruko

edo urrutikoekin mintzatzeko eta hitun haiek sortutakoak ezagutu ahal izateko. Izan ere gizakiok gauza gara hizkuntza asko ikasi eta erabiltzeko, eta gauza gutxi eman dezaketen ezagutza eta plazerra sortzen du horrek. Hizkuntza ez baita komunikatzeko bitarteko hutsa, hori baino askoz gehiago ere bada. Hizkuntzaren bitartez lortzen dugu gauza gehienak ezagutzea eta ulertzea, hizkuntzaren bitartez eraikitzen dugu gure adimena eta pentsatzeko ahalmena, baina baita gure sentipenen kontzientzia eta adierazteko gaitasuna ere; eta hizkuntzaren bitartez sentitzen gara familia, herri, gizarte bateko partaide, nahiz eta gizatalde horretan hizkuntza bat baino gehiago ere erabiltzen diren. Hizkuntzaren bitartez integra ditzakegu kanpotarrak ere gure artean, gurea irakastearekin batera, haiek dakartena ikasiz eta gurean txertatuz eta denok aberastuz.

Eta zorte handia daukagu gaur. Ez daukagu bat eta bakarra aukeratu beharrik. Geurea defendatzeko besteenak ere onartuz eta ikasiz indartsuago bihurtzen gara. Eta baditugu bitartekoak, ikasteko baliabideak, geroz eta garatuagoak eta eskuragarriagoak.

Eskolan eta eskolatik kanpo, hala ere, beste hizkuntza bat ikasteak ahalegina eskatzen du, ez dago dudarik, baina bizi garen tokian milaka urtetan bizi eta garatu den hizkuntza ikastea ezinbesteko baldintza da gure izaera, gure nortasuna garatzeko. Eta horretarako ez diogu uko egin behar norberarena den besteari edo ikasi nahi ditugun beste guztiei.

Baina euskararik gabeko euskaldunak behatz eta esku oso bat baino gehiago ere faltako lukeela iruditzen zaigu. Biziraun dezake, jakina, baina bere nortasunaren osagai nagusi bat beti faltako zaio; ezintasun horren ondorioz, ondokoak bere hizkuntza uztera, isiltzera behartzen baititu.

¹ Margareta Almgren, lagun eta lankide suediar-euskaldunak suedierazko jatorrizko bertsioa pasa di.

Jag är en zulu. Ett av mina fingrar är amputerat. Ändå kan jag stå ut med smärtan, och jag har nio fingrar kvar, lika många som schakalens liv.... Jag kan avstå från ett av mina fingrar, men hur ska jag kunna

Hizkuntzaren bitartez lortzen dugu gauza gehienak ezagutzea eta ulertzea, hizkuntzaren bitartez eraikitzen




dugu gure adimena eta pentsatzeko ahalmena, baina baita gure sentipenen kontzientzia eta adierazteko gaitasuna ere; eta hizkuntzaren bitartez sentitzen gara familia, herri, gizarte bateko partaide, nahiz eta gizatalde horretan hizkuntza bat baino gehiago ere erabiltzen diren. Hizkuntzaren bitartez integra ditzakegu kanpotarrak ere gure artean, gurea irakastearekin batera, haiek dakartena ikasiz eta gurean txertatuz eta denok aberastuz.

leva utan att veta men jag är? (Hernning Mankell (1993) Den vita lejoninnan). Euskarazko bertsioa gaztelaniazko itzulpenetik egin dut: “*Yo soy un zulu. Uno de mis dedos está amputado. Aún así, soportaré el dolor, y me quedan todavía nueve dedos, tantos como vidas tiene el chacal. (...) Puedo prescindir de uno de mis dedos pero, ¿Cómo voy a poder vivir sin saber quién soy?*” (Hernning Mankell, *La leonablanca*, gaztelaniazko edizioa Barcelona: Quinteto, 2007, 236-238)


² “Zalantzarik ez, Petrus asko bizitu du, badu zer kontatua, zalantzarik ez. Egunen batean ez litzaioke axolako (kontalariari) Petrusen istorioa entzutea. Baina ahal izanez gero ez ingelesez. Geroz eta garbiago ikusten du honek ingelesa ezegokia dela Hego Afrikako egia adierazteko. Ingeleseko esamolde egin asko aspalditik astun, gogor bihurtu dira, malgutasuna eta zehaztasuna galdu dute. Lurrean hiltzorian eta sedimentatzen ari den dinosauoaren moduan hizkuntza ere gogortu egin da. Ingelesaren moldeetara beharturik, Petrusen istorioa artritikoak bihurtuko litza-teke, agortua.” (J.M. Coetzee (2000) *Disgrace*, London: Vintage, 117. or.).

Haur-jolasen abestiak I, II eta III CDetan agertzen ziren abestiak eta azalpenak eskaintzen dituen Liburu-CD bakar batean jaso ditugu, honela sailkatuta:

- "Euskaraz jolasten" eta "Trena" abestiak
- Bidaietako jolasak (5 abesti)
- Zotz egitekoak (3)
- Txalotako jolasak (5)
- Txikientzako jolasak (4)
- Korroan aritzekoak (6)
- Zabuan kantatzekoak (3)
- Soka saltoan aritzekoak (9)
- Behatzen jokoak (4)
- Gomatakoak (4)
- Pilotarekin jolastekoak (2)
- Lurrekoak (5)
- Ilaran jartzekoak (3)
- "Corrido" erakoak (2)
- Ezkutaketakoak (2)
- Taldean aritzeko bestelakoak (10)



Bide eginean jarraitzen dugu zuen
ekarpenekin eta parte-hartze
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa duen edonoren
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoak euskal
hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.

abendua

berriak

Egungo eskola publikoaren erronkak aztergai

Egungo eskola publikoaren erronkak eta noranzkoa aztertu zituzten joan den azaroaren 20an eta 21ean Eibarren, Sarean elkartearen XXV. Topaketetan. Parte-hartzaileek egindako hausnarketaren guztien artean ideia hau azpimarratu dute antolatzaileek: Euskal Eskola Publikoa ekitatea eta bikaintasuna uztartzeko helbururantz bideratuta dagoela. Eskolatzera koan guztientzako aukera berdinak gardentasunez zaindu, ahalik eta eskaintzarik zabalena ireki eta ikasleek eskura ditzaketen emaitzarik hoberenak ahalbidetu beharko li-

tuzkeela ondorioztatu dute, eta helburu horietara iristeko, hainbat eragile, eskola kidego osoaren parte-hartzea, heziketa esparrua osatzen duten eskolaz kanpoko erakunde eta pertsonen arteko elkarlana eta koordinazioa eta irakasleen arteko talde-lana etengabe zaindu behar direla uste dute.

Etorkizuneko herritarren konpetentzien garapen egokia lortzekotan, egin daitekeen inbertsiorik onena Euskal Eskola Publikoaren aldeko benetako apusta egitea dela uste du Sareanek, eta bide horretan, Hezkuntza Adminis-



trazioari beharrezkoak diren neurriak har ditzala eskatu dio.

Mila lanpostuko lan eskaintza egingo du Hezkuntza Sailak

Mila lanpostu baino gehiagoko lan eskaintza publikoa egingo du Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak datoren urtean. Zehazki, 1.081 lanpostu eskainiko dituzte Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Horietatik 1.051, Haur Hezkuntzarako eta Lehen Hezkuntzarako izango dira eta gainerako-

ak, 30, Hezkuntza Ikuskaritzarako. Lan eskaintza publiko hori 2010. urtean 3.000 lanpostu egonkor izateko konpromisoaren barruan kokatu du Tontxu Campos Hezkuntza sailburuak. 2009. urterako 2.625 milioi euroko aurrekontua aurkeztu du Campos-ek, aurtengoa baino % 7,41 gehiago,

eta Euskal Autonomi Erkidegoko aurrekontu guztiaren laurdena hartuko du hezkuntzara bideratutakoak. Azpiegiturarako inbertsioa handituko dute, eta aniztasunari arreta eskainiko diote. Era berean, eleniztasuna bultzatzeko asmoa du Jaurlaritzak.

Eskolak euskaldundu behar duela aldarrikatu dute beste behin ere

Hainbat eragilek eskolak euskaldundu behar duela aldarrikatu dute sinatutako agiri berrian. Eskolak euskalduntzea "eskubidea, nahia eta beharra" dela aldarrikatzen du agiriari eta hiru euskal ikasle bakarra euskalduntzen dela salatzen du. Euskal ikasleak euskalduntzeko proposamen nazional baten beharra aldarri-

katu dute eta proposamen horrek Euskal Herri osoko ikasleak hartu behar dituela, eta helburua euskaldun eleanitzak izatea dela azpimarratu dute.

Bestalde, Euskal Herriko hezkuntza sistemen egoera aztertu dute agiriari eta hizkuntza ereduak porrota egin duela esan dute. Eusko Jaurlaritzako

Hezkuntza Sailak aurkeztu duen Hizkuntza Ereduen Lege egitasmo berria ez da aski haien ustez, proposamen malgua eta zehaztugabea dela uste dutelako. Hori dela eta, euskalduntzea bermatzeko politikei ekiteko eskatu diete administrazioei.

Kirol, hezkuntza eta kultur arloko 108 lagunek sinatu dute idatzia.

Heziberri proiektuaren baitan antolatutako

Berrikuntzarako Hezi izeneko jardunaldiak amaitu dira

Berrikuntzarako Hezi izeneko jardunaldiak amaitzeko, Juan Jose Ibarretxe lehendakariarekin bildu ziren 40 pertsona etorkizuneko hezkuntzak dituen erronkak aztertzeko. Helburua, desioetatik konpromisoetara eta ideien diskurtsoetik ekintza praktikoe-tara pasatzea izan zen prentsa ohar bidez jakinarazi zuten.

Heziberri proiektua bultzatu duten erakundeetako kideak izan ziren bertan. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, HAFE-k (Euskal Herriko Hezkuntza Administrazioen Forum Europarra), Innobasque-k (Berrikuntzaren Euskal Agentzia) eta Jakiunde-k (Zientzia, Arte eta Letren akademia) elkarlanean egindako proiektua da Heziberri, hezkuntza birpentsatzeko egindako proiektua.

www.heziberri.net Heziberri proiektuaren partaidetzarako web orria da. "Berrikuntzan europar erreferentea izateko dugun erronkari aurre egiteko,



eta gure herriak behar duen hezkuntzari buruzko pentsamendu, iritzi eta hausnarketarako eremua zabaltzea da asmoa", sustatzaileek nabarmendu dutenez. Irakaskuntzarekin harremana duten gizarte-eragile guztien zuzeneko partehartzearen bidez, gune ireki eta dinamikoa sortu nahi dute era horretan.

Heziberriren eginkizuna gizarte berritzailea, sortzailea eta aitzindaria erakitzea da egitasmoaren bultzatzaileen esanetan, eta gizartearen eraldatzea zati handi batean hezkuntzaren eginbeharra izanik, hezkuntza nolakoa izan behar den adostu beharra ikusten dute. Adostasun horretara iristeko tresna gisa aurkeztu dute Heziberri.

Borrokak heziak, iraultza haziak

Borrokak heziak, iraultza haziak lelopean ospatu zuen Ikasle Abertzaleak antolakundeak bere 20. urteurrena azaroaren 22an Erandion egin zuen Ikasle Egunaren bidez. 4.000 gaztek hartu zuten parte eta egunean zehar eztabaidak, mobilizazioak eta ekitaldi politikoa izan ziren, gaueko kontzertuen aurretik.

1988 urtean sortu zen Ikasle Abertzaleak, Iruñeko Txantrea auzoan eta gaur arte hamaika aldarrikapen eta kanpaina egin ditu: autoritarismoaren aurka, euskaldun-zearen alde, jaiegun arrotzen aurka, greba eskubidearen alde, hezkuntza sistema propioaren alde... Milaka ikasle igaro dira taldetik urteotan eta urtemugaren aitziaz, haiei zorionak emateko eta esker ona adierazteko, bideo-erreportajea osatu dute IAkoek, zenbait kideri egindako elkarrizketekin osatua. Abesti bat ere prestatu dute eta guztia biribiltzeko, aldarrikapena eta festa bat eginik, Ikasle Eguna antolatu zuten Erandion.



Astronomia egungo munduko zientzietan



Astronomia egungo munduko zientzietan izeneko irakasleentzako trebakuntza jardunaldiak egin ziren azaroaren 14an eta 15ean Donostiako Zientziaren kutxaGunean. Jardunaldiak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak eta kutxaGuneak sinatu berri duten Suspertu Egitasmoan kokatu ziren eta irakasleak Astronomian eta Munduko Zientzietan trebatzea izan zen helburua. Astronomiaren alderik didaktikoenak ikasteko eta sakontzeko aukera izan zuten eta aste osoan zehar, Zientziaren Astean, ikasleek hainbat jardueretan parte hartzeko aukera izan zuten, mineralogiari buruzko "Luraren erdigunerako bidaiak" izeneko tailerlean, edota intsektuen munduan murgiltzeko "Zomorroak" izenekoan, besteak beste.

Armix ilargian galduta bideo-joko didaktikoa kaleratu du Elhuyarrek

Armix Ilargian Galduta izeneko bideo-jokoa argitaratu du Elhuyar Fundazioak, 7-10 urte bitarteko haurrentzat. Armix protagonistatzat duen serieko bigarren CD-ROMa da, eta jolasen bidez, jokalaria matematika, ingurua eta hizkuntza gaiak landuko ditu. Teknologiari dagokionez, hiru dimentsioko irudiez gain, jolasteko 3D-ko ingurunea izango du jokalaria.

Armix Ilargira iritsi da, baina iritsi bezain laster bere kohetea lapurtu diote eta jokoan zehar, Armixi bere kohetea bilatzen lagundu beharko dio jokalaria, Lurrera bueltatzeko aukera izan dezan. Jokoaren demoa www.elhuyar.org/armix2 web gunean aurki daiteke.



Ikastaroak

* **Familia eta hezitzailean arteko elkarlana: haurren heziketa partekatua** **Noiz:** abenduak 1-19. **Non:** Bilbon, Luis Briñas ikastetxean. **Antolatzailea:** UEU. **Informazio gehiago:** www.ueu.org

* **Haur psikologia: haurren garapena, portaerak eta nahasteak** **Noiz:** abenduak 1-19. **Non:** Gasteizen, Mendizabala Institutuan. **Antolatzailea:** UEU. **Informazio gehiago:** www.ueu.org

* **Bizitzarako gaitasunak eta baloreak** **Noiz:** abenduak 13. **Non:** Bilbon. **Antolatzailea:** Hezkuntza Ildo Berriak Fundazioa. **Informazio gehiago:** www.fundacionnce.org

Urtarrilean nabarra berria!

- Irudi berria
- Tamaina berria
- Atal berriak

...

komikiak

antzerkia

2001



sarrionandia

2002



2008



erreportaiak

musika

2009

telebista

2003



2007



literatura



elkarrizketa



denborapasak

erakusketa birtuala

diaspora

2005





Hik hasiren web gunean dugun EZTABAIDAGUNEA paperera ekarri dugu. Hilero, web orrian jasoko ditugun iritzien laburpena izango duzue eta baita hurrengo hilabeteko galdera zein izango den ezagutzeko aukera ere. Hona hemen azaroko eztabaidak utzi diguna...

>>> EAEko Hezkuntza Sailak "Euskadin hizkuntza ofizialak eta atzerrikoak ikasteko, irakasteko eta ebaluatzeko markoaren lege proiektua" aurkeztu berri du. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak, aldiz, HTI (TIL) edo "Hizkuntzen Tratamendu Integrala" deritzana. Zer iritzi duzue proiektu horien gainean?

> ... berdintasunak ez du existitzen. Nik nahiago dut AUKERA BERDINTASUNA hitz egitea. Zentzu horretan, kezka garria da neska mutil batzuei hemengo hizkuntza eta kultura ezagutarazteko aukerarik ez eskaintzea. Horrela jokatzean, aukera berdintasunaren aurka ari dira. Bertako hizkuntza eta kultura ezagutzeak bertakoagotzen du jendea, komunitatekoa izaten laguntzen du, harremanak errazten ditu, lanerako eta zerbitzu publikoa eskaintzeko hobeto kokatzen du, maitasunerako ate gehiago irekitzen ditu... Eta niretzat oso garrantzitsua dena, ez du eskal giroko guneetan zapaltzaile gisa jokatuko (...). Zapaltzaile, ukatzaile, baztertzaila, jazartzaila izateak ez dio onura ekartzen inori, alderantziz baizik, amorrua, kontraesanak, sabeleko mina... Eta mundura ez gara sufritzera etorri, ezta? Gozatzeri, elkarri laguntzera, maitatzera, poza sentitzera... Hala egin dezagun, eta, hala izan bedi! *Jon*

> Nafarroako Hezkuntza Departamentuak TIL edo HTI "Hizkuntzen Tratamendu Integrala" deitutakoa, hala al da? Integrala, OSOA, alde guztiak kontuan hartzen dituena da. Nola liteke, bada, integrala deitzea bertako hizkuntza propioa, "Lingua Navarrorum", bere barnean jasotzen ez badu? Proposamen horrek, nafar jendartea banatu besterik ez du egiten, euskara ezagutuko dutenak alde batean jarriaz, eta, ezagutuko ez dutenak, bestean. *Jone*

> Nahikoa da "Lingua Navarrorum" ditxosozkoarekin. 1.167an idatzitakoa da eta horrekin zabiltzate beti bueltaka. Ez dira alferrik pasatu ia mila urte! Erromatarak izan ziren Nafarroan, godoak ere bai, eta arabiarak urte askoan, juduak... Ijito generazio ugari ere bai, gaur arte. Goitik frantsesak eta behetik espainolak. Horren guztiaren ondorioz, ez dago ia "Lingua Navarrorum" ditxosozkoa Nafarroa osoan. Aurrera begiratu behar da beti eta jendeak nahi duena ikas dezala, ala, ez al dugu demokrazian sinesten? *Eduardo*

> Eduardo, bakoitzak nahi duen hizkuntza aukera dezala diozu. Aukera librea izango balitz Nafarroan... Edo ez zara nafarra eta ez duzu egoera ezagutzen, edo ez duzu inolako objektibotasunik (...). Zergatik Valtierra, Tuteri, Lodosa eta abarreko neska-mutilek ez dute zentro publiko batean euskaraz ikasteko aukerarik? Ez al duzu ikusten ukatua dutela zuk diozuna? Hau da, bakoitzak nahi duen hizkuntza erabakitzeak aukera izatea?... Eduardo, arren, ireki begiak, eta, ukatzaileei ez garbitu aurpegiak! *Fernando*

Datorren hilabeteko eztabaidarako galdera...

>>> Euskal Herriko zenbait ikastetxetan ordutegi jarraia dute. Zer iruditzen zaizu ordutegi jarraia hezkuntza etapa guztiara zabaltzea?

Partekatze proiektuak

Eskuartearen proiektu interesgarriak izango dituzue, ziur. Maiz, apalen batean ahaztuta geratzen dira, ordea, eta guk, hautsa kendu eta horiek partekatzeri bultzatu nahi zaituztegu. Ikastetxeetan erabiltzen diren proiektuak, materialak, fitxak, irudiak, gidoiak, powerpointak, unitate didaktikoak... partekatzeak aukera duzue gure web gunean. Guztion artean, hezkuntza aberasteko aukera dugu. Anima zaitzete besteekin PARTEKATZERA!

Gure buletin elektronikoa jaso nahi al duzu?

Zure helbide elektronikoa Hik Hasiri buruzko azken berriak eta hainbat albiste jaso nahi badituzu, gure buletin elektronikoa harpidetu besterik ez duzu egin behar. www.hikhasi.com web orrian izena eman, eta etxetik mugitu gabe jasoko duzu Hik Hasiren berri!

argitalpenak



Amilami. Laminen istorioak
Juan Kruz Igerabide
ELKAR

Amilami lami gazteak bizi izan zituen abentura eta larrialdiak kontatzen ditu liburuak. Amilami, bere ama bezala, lamia zintzoa da, baina oso onak ez diren pertsonaiak ere agertzen dira. Lamiei buruzko ipuinak, poematxoak eta aho-korapiloak ere irakur daitezke. Zazpi urtetik gorakoentzako liburua da, eta Elena Odriozolarenak dira irudiak •



Eguraldia eta kultura euskaldunak
Kepa Diegez
GAIK

Mendeak joan, mendeak etorri, euskaldunok eguraldiaren gaineko esamoldeak eta atsotitzak sortu ditugu, baina zoritxarrez, horietako asko galzorian daude. Liburuan, horietako 131 bildu dituzte fenomeno atmosferikoekin zerikusia duten hainbat gai azaltzeko: haizeak, hodeiak, hozberoa, euri motak, elurra, izotza... •



Berriz ere hutsetik hastera
M.A. Mintegi
EREIN

Idoia hemeretzi urte betetzera doa eta gurasoen etxetik kanpo bizi da. Maitasuna ate joka etorri zaio, baina nahastuta dago, azkenean maitasunaren abenturan murgilduko bada ere. Bizimodua guztiz aldatuko zaio Idoiari. Neska gazte baten sentimendu eta harremanen mundu korapilatsura gerturatuko gaitu idazleak •



Esfinge negartia
Jansain eta Pablo Zerda
SAURE

Irudi bereziak dituen komikia da *Esfinge negartia*. Gazte bat bizitzan aurrera doa eta jarrera irmoa du, gizartean inplikatzeko da, baina horrek ez dakarkio ziurtasunik. Bere malkoak onartu beharko ditu, baina malko horiek zirrara eragingo diote eta bizitzari buruzko irizietatik aldentuko dute •



Gogoak
2007ko urria
EHU-UPV

Euskal Herriko Unibertsitateko Hizkuntza, Ezagutza, Komunikazioa eta Ekintzari buruzko aldizkariaren ale berria kaleratu dute. Hainbat artikulua eta liburuen kritikak aurkituko dituzte irakurleak, baita zenbait kongresu, jardunaldi eta ikastaroren inguruko informazioa ere •



Narrazioak eta olerkiak
Hainbat idazle
R.M. AZKUE SARIA

Euskaltzaindiak eta Bilbao Bizkaia Kutzak kaleratu dute liburua. 2007. urteko Azkue sarietan irabazle izandako narrazioak eta olerkiak bildu dituzte. Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi eta Nafarroa Behereko hamahiru idazle gazte egindako lanak dira liburuan aurki daitezkeenak •

... nora joango gara?

Izenaduba basoa

Izena duen guztia... bada!

Mari, Basajauna, Tartalo, Akerbeltz, galtzagorriak, Mari Teiletako... eta, jakina, Olentzero. Pertsonaia mitologiko horiek guztiak eta gehiago aurki daitezke Izenaduba basoan. Basoaren goiko aldean dago Landetxo Goikoa baserria, eta hantxe bizi da Olentzero. Olentzeroren etxea baserri magikoa da, gainera, eta, erdi-erdian, zuhaitz magikoa du. Zuhaitzaren azpiko aldean, berriz, Mariren koba dago. Euskal Herriko lehen parke mitologikoa da Izenaduba, eta iazko abenduan zabaldu zuten, Mungian. Gure mitologia horren aberatsa izanda ere, mitologia hori erakusteko tokirik ez zegoela ikusita zabaldu zuten Izenaduba, eta milaka eta milaka pertsonak bisitatu dute inguru magiko hori urtebetean.

6.000 metro koadroko azalera du Izenaduba basoak, eta hantxe bizi da Olentzero, bere etxean, Landetxo Goikoa baserrian. Baserriak balio arkitektoniko handia du; 1510. urte ingurukoa da, XVI. mendekoa, eta Bizkaiko baserri zaharrenetakoa dela uste dute. "Baserriaren aurreko alde guztia kontserbatu egin da, eta barruko hiru solairuak Olentzeroren baserria izateko egokitu ditugu. Baserri magikoa da, eta barruan zuhaitz magikoa jaio da. Solairu bako-



tza zuhaitzaren zatiekin egokitu genuen; baserrian sartu, eta enborra ikusten da. Basoa balitz bezala atondu genuenguztia, eta Olentzerok ongietorria eman ondoren, jokoak egiten ditugu, galtzagorriekin, Basajaunarekin... Bigarren solairuan, adarrak ikus daitezke, txoriak... Eta hor, kanta tradizionalak abesten ditugu. Sotoan, berriz, Mariren koba dugu, eta zuhaitz magikoaren sustraiak ikusten dira. Oso baserri zaharra da, baina puntako teknologiaz hornitu dugu: bideo proiektzioak, karaokea, ipuin interaktiboak... Haurrak etortzen direnean, lehen unetik jolas-aritzea da helburua, eta euskal mitologiara era atseginean hurbiltzea", esan digu Aitziber Olabarrietak, Izenadubako gerenteak.

Olentzero haur guztiek ezagutzen

duten pertsonaia mitologikoa da, eta amu gisa erabiltzen dute, gainerako pertsonaiak ezagutarazteko. "Haur txiki-ekie guztia ipuin bat balitz bezala konta-





tzen diegu. Olentzeroren etxean, Olentzerok berak pantaila batetik egiten die ongietorria eta, haiek, askotan, eskua altxatzen dute erantzuteko, benetan Olentzero dela pentsatzen dutelako”, dio Aitziberrek. Kanpoko aldean, berriaz, jolasak daude: Basajaunaren labirintoa, Mariren koba, Tartaloren haritz sakratua... Haurrei pertsonaia horien inguruko kondaira azaltzen diete, eta hainbat jarduera egiten dituzte. Hiru dimentsioko simulagailua ere badute, eta, haurrek, han eserita, hegan egiten dutelako sentipena izaten dute.

Euskal mitologia curriculumean lantzen den gaia da, baina, Aitziberrek esan digunez, orain arte ez zegoen gai horrekin lotzeko moduko irteerarik, eta Izenaduba aproposa da horretarako. Oso ongi dokumentatu dute guztia, Jose Migel Barandiaranek eta Resurreccion Maria Azkuek utzitako lanetan oinarritutako informazio eskuratu baitute; eta informazio horretan oinarritu dute parkearen eta edukien diseinua.

Urtebete pasatu da Izenaduba zabaldu zutenetik, eta 25.000 bisitari izan dituzte dagoeneko. Jendea pozik ateratzen da handik, eta haurrek zein helduek geure mitologia ezagut dezakete, era atseginean eta jolasen bidez.

IZENADUBA BASOA

Olentzeroren baserria
Landetxo Goikoa
48100 MUNGIA (Bizkaia)
Telefonoa: 946 740 061
www.izenaduba.com
olentzero@izenaduba.com



Oharrak:

- Bisita guztiak gidatuak dira, eta sarrera mugatua dute.
- Bisitak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez egin daitezke. Frantsesez eta ingelesez egiteko, ordea, aurrez abisatu behar da.
- Bisita guztiak taldearen beharretara egokitzen dira.
- Egonaldia egun osoa izan daiteke.
- Asteartetik igandera izaten da zabalik.
- Prezioak:
 - * Haurrak, 0tik 2 urtera: doan.
 - 2 urtetik gorakoak: 6 euro.
 - * Helduak: 8 euro.
 - * Taldeen arduradunak: doan.

Jarduerak:

> Lantegiak

Behar bakoitzera egokitutako lantegiak eskaintzen dituzte.

> Unitate didaktikoak

Adin bakoitzera egokitutako unitate didaktikoak dituzte. Ikastetxeei eskaintzen diete material hori, bisitaren osagarri gisa.

> Baserrira bisita

Landetxo Goikoa baserriak arkitektonikoki balio handia duenez, baserria bera ezagutzeko eta baserriko elementuei buruzko sinesmenak lantzeko bisitak eskaintzen dituzte.





Amagoia MUJICA

KAZETARIA

Egun hauetan, hainbeste mantal, arbel, andereño, negar eta mela-mela egindako guraso ikusi eta nire matematikako irakasle harekin gogoratu naiz, “Gora eguzkia askatuta!”. Hori zen bere leloa. Indarrez sartzen zen ikasgelara eta leihoak irekitzen zituen, parez-pare. Gure arreta guztia bereganatua zuen ordurako. Eta energia berarekin ematen zuen ordu osoa. Matematika irakatsi zigun, ondo gainera, eta kasik gu konturatu gabe. Atseginak ziren matematikako klase haiek, nahiz eta askoren buruan *atsegina* eta *matematika* esaldi berean jartzea aberrazioa izan daitekeen. Arazoa da irakasle onak adina arrasto uzten duela txarrak, ezta?

Baina konturatu naiz irakasle onari

Matematikako irakasle hura

eta txarrari buruzko eztabaida ez dela hain ohikoa, apenas hitz egiten dela horri buruz. Ikasmaterialaz eta metodoez, bai, hitz egiten da, norbaiti bota behar errua eta...

Aditu batek egindako hasnarketa irakurri dut azken egunotan: “Teknologia berrien erabilerak eta indibidualtasunaren industriaren arrakastak aurrez aurre talka egiten dute hezkuntzako ohiko metodoekin eta ikasgelen barruan nagusi den talde kulturarekin”. Bueno, egia da gaztetxoak eskolatik Internet maneiatzen jakin gabe ateratzea ez dela akaso egoerarik idealena, baina, ikasgelen barruan talde kultura nagusi izateak kritikarik merezi ote du? Aditu horrek berak bideo-jokoak ikasgela erabiltzeak ekar ditzakeen onurak nabarmendu ditu. “Eskolak, erakusteaz eta hezteaz gain, dibertitu egin behar du. Jolasa ikaskuntzaren faktore bat da”. Ados nago horrekin, baina, ondo pasatzea eta bideo-jokoak hain estuki lotu beharrak kezka sortzen dit. Baina, tira, egia da teknologia berriak ikasgeletara sartzeko moduez hausnar-

tu beharra dagoela.

Baina, oraingoz, liburuak dira nagusi ikasgeletan. Eta horien inguruan ere bada zer esanik. Lagun batek lehenengoz erosi dizkio aurten liburuak semeari, Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako saltoa eman baitu. Haserre dagoela kontatu dit: “Lehendabizi, liburuak ordaintzera joan nintzenean haserretu nintzen, prezioagatik. Eta, gero, etxera joan eta liburuak ikusi nituzenean oraindik eta gehiago haserretu nintzen. Helburua begi bistakoa da: haurrak asper daitezela. Topiko guztiak bete behar ditu gure gizarteak; langileak ahalik eta izorratuen egon daitezela eta haurrak ahalik eta gehien asper daitezela eskolan”. Zorte pixka batekin, liburu aspergarri horiei kolore eta argi pixka bat ematen asmatuko duen irakasleren bat izango du parean nire lagunaren semeak. Baina, hori, zorte kontua da eta zorteak ez luke hainbeste garrantzia izan behar ikasgeletan, ezta?

GARA egunkarian argitaratua (2008-09-11).



Telebista ikusteak hurrei mesede egiten diela uste du gurasoen % 80k, Erresuma Batuan egindako inkesta baten arabera. Bi eta hamaika urte arteko hurrei “irudimena zabaltzen” diela uste dute gurasoen % 60k.

Iturria: Berria egunkaria, 2008-11-20.

Argia Egutegia 2009

Salgai dagoeneko

Azalean:

- Eguzkia eta ilargiari dagozkionak
- Santutegia
- Gizon-emakumezkoen euskal izenak
- Itsasgora eta itsasbeherak

Atzealdean:

- ARGIAk 90 urtetan zehar argitaratutako testu, iragarki eta bitxikeriak.




SALNEURRIA: 8 €

ESKAERAK: 943 37 15 45

PiRritx, Porrotx eta Mari Motots

DVD


- Eskerrik asko! Ikuskizuna, 2007ko martxoaren 5ean Andoaingo Bastero Antzokian zuzenean grabatua.
- Testimo, malte zaitut! Lax'n busto kataluniar taldeak Euskal Herria eguniko bisitaren kronika eta abestiaren euskarazko eta katalunazko bertsiorekin bideoklipa.
- Suhiltzaille izan nahi dut. Donostiako Suhiltzaileen batzara grabatutako erreportajea eta bideoklipa.
- Eskerrik asko! Ipuintxo, marrazki bizidunetan.
- Kaldereoren konpartsan. Gehitu elkarrekin lagunen konpartsan "iragina" izen jineneko kronika eta Maita zaitut abestiaren bideoklipa.
- Txan, bideoklipa.
- Zarautzen lagunekin, dantzen eta kantuen egindako egungoaren kronika.
- Karaokesak.
- Abestiaren partiturak, DVDak dituen PDF arribioan bidez inprimatu daitezkeanak.



DISKO-LIBURUA

16€

20 KANTU + 28 ORRIALDEKO LIBURUKKA



BADA AL TXOR IAT MUNITU USIAN EUSKALDUNIK BAKARRIK DUGUNA,
 EZ DA EZKERTUAN DAGOI'N HORIE TAKIA,
 I UNTEAN EIU UNARTE BAKANTI BATEAN LONDENIK DARDENA,
 EZ DA FILME TAKIA EIE
 AL TXOR I IURI E BAZUKIA DA, I EA GIU DENUMA IIA,
 I ENUK EI KAHRI'XIN PARTE KAT/EKU MODUKOA,
 GAINERA, PARTEKAT/IZ BAKARRIK HARTZEN DU BI'RIE IENI TAKO BALIOA,
 AL TXOR I IURI E ZI'XINI TAN DUKU, BEI'I' PREST,
 I'NATEKO ETA JASOTZI'KO, EIU BIAK IATERA, AKAND
 ASMATU AL IUZU DARDENE KU ZEN IENI' BAI?

I IAI MUXU DA, EDO ... BAI
 EUSKARA DA, I'DO RIAK BATERA,
 RIAK BAITINA PARTE KAT/EKU
 IIAK E/PAINE IAN, OIXO,
 ZUGANDIK GURANA,
 EIA GUGANDIK ZUGANA,
 KU ERE BEI'I
 I'RI'SI IAITZU,
 EIA ZU?

ESAGUZU
 EUSKARAZ
 EMAGUZU
 MUXU!



eskaerak

Oria etorbidea, 10
 Brunet Etxepare 5, E-4